



ARGIA

**DEIKAZTELU-ITSASO
GOITENTSIOKO LINEA**

**ALFERRIKAKO
PROIEKTUAK
OSASUNARI
MEHATXU**




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545
HARPIDE@ARGIA.EUS
WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailua
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 20 Bea Salaberrri
- 21 Inma Errea
Itxaro Borda
- 22 Bixente Serrano Izko



- 40 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
AHOZTAR ZELAIETA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

Ada Colau Bartzelonako alkateari 'La Directa'-ko kideek egindako elkarrizketa ekarri dugu ARGIAra. (ARGAZKIA: BRAIS G. ROUCO)

SAKONEAN

- 14 | Jabier Muguruza, "gutxiengo hautatuentzat" etiketapetik ihesi / Miel A. Elustondo
- 24 | Autobide elektrikoa. Sistemaren goi tentsioko zainak / Garazi Zabaleta
- 30 | Hazien pribatizazioa: gaurko negozioa, biharko eskasia / Asier Arrate Iruskieta
- 34 | Ada Colau, Bartzelonako alkatea: milioi eta erdi biztanleko hiria nola kudeatu / Joan Mas, Maties Lorente
- 37 | Txantreako emantzipazio bulegoa, okupazioaz harago / Lander Arretxea Bereziartua
- 38 | Akuilari aplikazioa, sakelakoa erabiliz euskarari egindako erasoak salatu / Onintza Irureta Azkune
- 44 | Nafarroako jotak: galduta dagoen hegoaldeko bertsolaritza / Julen Leuza Izko

OHARRA: DATORREN ASTEAN EZ DA ARGIA KALERATUKO. URTARRILAREN 17AN ITZULIKO GARA.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARU DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
ekoizpenak: Berdaitz Goia. **Idazkaritza:** Alohía Soraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eu. Harpidetzak: harpide@argia.eu. Erredakzioa: kazeta@argia.eu.
Interneten: www.argia.eu.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



ilimi
mugag

FLOR DE P...



PANORAMA

Hator, hator, neska-mutil etxera...

...gaztaina ximelak jatera. Eta urdaiazpiko iberikoak, eta arkumea, eta mariskoa, eta xanpaina... Kontsumo datuei erreparatuta kanta desfasatuta geratu zaigu. Fuci elkarteak 2013an emandako datuen arabera, Hego Euskal Herrian buruko 480 euro gastatzen ditugu Eguberrietan. 160 euro oparitan, 60 loterian, 200 janarian eta 60 aisialdirako. Oparotasuna eta zoriontasuna eskutik helduta ei datoz gurean ere bai.

Argazkia: Irantzu Pastor

“COP21en karbono dioxido isuriak murrizteko lorturiko hitzarmena iruzurra izan da”

James Hansen
(*The Guardian*-en)

argia.eus-en ikusgai



Mozalik gabe, libre

Ahotsa.info-ko kideek poliziaren gehiegikeria erakusten duten irudi asko grabatu eta zabaldu dituzte, eta Mozal Legearekin mehatxatze-ko arrazoia horixe dela salatu dute.



Sentipen gozoak eta bortitzak

VI. Gaztezulo Film Laburren lehiaketaren irabazlea. Egi-lea: Maika.



UNICEF

4.000 hildako Europara bidean

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

2015eko drama handietakoa izan denaren datuak ezagutarazi ditu berriki Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak. Joan berri den urtean, milioi bat lagun baino gehiago iritsi dira Europara, gatazkatik eta miseriatik ihesi; horietatik, 4.000 inguru bidean hil direla kalkulatu du Erakundeak.

Mediterraneoa gurutzatzea lortu duten bi pertsonatik bat siriarra da. 2011ko martxoan Sirian hasitako gerrak milioi laurden herritar akabatu du eta biztanleriaren kasik erdia alde egitera behartu. Siriaren atzetik, afganiarrak eta irakiarrak dira migratu duten gehienak.

Jendea hiltzera ez kondenatzeko eta egoera modu ahalik eta duinenean bideratzeko, migrazioa legeztatzea eskatu du Erakundeak, jatorritik bidaia segurua bermatuz eta atak itxi ordez sarbidea erraztuz, Europar batzarreko migrazioa lasai mugi daitezen, mugetan pilatu ordez. Europako herrialdeek, baina, ez dute errealitatea gestionatzen jakin, eta tirabira ugariaren ondoren 160.000 errefuxiatu Europar Batasuneko herrialdeetan birkokatzea adostu duten arren –zifra oso eskasa, dagoeneko milioi bat lagun iritsi direla kontuan hartuz–, oso-oso gutxi dira plan horren bitartez oraingoz birkokatu dituztenak.

Negu gorriaren atarian, egoerak ez du itxura onik.

“Bertsoa, niretzat, ez da zenbaki bat”

BEÑAT GAZTELUMENDI, GIPIZKOAKO BERTSOLARI TXAPELDUNA

Bakoitzak bere gustuak dauzkala eta bertso bat puntuatzea oso zaila dela dio Gaztelumendik. Bertso-eskolez ere mintzatu da: “Bertso-eskolan hasten zarenean, lehenbiziko aldia oso gogorra da, baina taldeak babesten zaitu, eta ziurtasun pixka bat ere behar duzu zeure buruarekin, seguru asko zurian geldituko zarelako. Ikasi behar duzu zure akatsak onartzen, baina bizi garen gizarte honetan ez dut uste gure akatsak onartzera bultzatzen gaituztenik. Bertso-eskolak balio hori dauka, eta balio handienetako bat da: bestela lotsaz edo beldurrez isilik geldituko litzatekeen jende horrek laguntza aurkitzen du hor”. **EL DIARIO VASCO (15/12/21)**



EUSKAL HERRIAN 2015ean

MATXISMOAK HIL DITUEN EMAKUMEAK

Melissa Noguez

Martxoak 4 -Baiona-

Leire Rodriguez

Abuztuak 19 -Bilbo-

Annie Cluchet

Martxoak 4 -Baiona-

Almudena Matarranz

Urriak 5 -Bilbo-


29 urteko emakumea

Apirilak 2 -Gasteiz-

Axelle Forgeron

Urriak 6 -Gixune-

izeberga INDARKERIA MATXISTAREN



GRAFIKOAREN IDEIA: AMNISTIA INTERNAZIONALA
ITZULPENA: ZUMAIKO ASANBLADA FEMINISTA



Ikasgaiak ezabatuko dituzte Finlandian

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

Eskola-orduak materiaka eta ikasgaika banatu ordez, gaitasunak ikuspegi globalagotik proiektuka eta egoera errealetan oinarrituta landuko dituzte ikasleek Finlandian, 2016tik aurrera.

Phenomenon Based Learning (Gertakarietan Oinarritutako Ikaskuntza) metodoa ezarriko dute ikastetxeetan. Horrek esan nahi du mundu errealeko gertakariak izango direla ikaskuntzarako abiapuntu, gertakariak bere osotasunean hartuz eta horien gainean hainbat materia landuz, modu integratu eta integralean, materiak modu isolatuan –alegia, ikasgaika– jorratu ordez.

Landu beharreko gertakaria izan daiteke, esaterako, Europar Batasuna, hedabideak, ura, energia, gizakia... Ikasgaien arteko mugak gainditu eta modu naturalean diziplina-arteko pentsamendua bultzatzea da asmoa, gertakariak (eta bizitzako/etorkizuneko afera eta arazoei) ikuspegi ugariatik heldu ahal izateko, erreminta ugari erabiliz.

Errealak diren –eta beraz zentzua ikusten dieten– gertakarien inguruan landuko dituzte ikasleek informazioa, ezagutza eta gaitasunak. Ikerketa eta praktikotasuna ere sustatzen ditu metodoak.

Irakasleak formazioa jasotzen ari dira Finlandian, eredu berrira egokitzeko. Hemendik aurrera, ikasleekin eta gainerako irakasleekin elkarlanean aritu beharko dute, eta euren lana ez da katedra ematea izango, bidelagun izatea baizik.

Ikasle suediarrentzat, *Denok feminista izan beharko ginateke liburua opari*

Feminismoaren definizio moderno bat eskaintzeko eta XXI. mendeko emakumeek jasaten duten diskriminazioaz eztabaidatzeko asmoz, Suediako 16 urteko ikasle guztiak oparia jasoko dute: Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren *Denok feminista izan beharko ginateke* liburuxka.

Liburuxka banatzeko ekimena Suediako Emakumeen Lobbyak jarri du martxan, eta beste hainbat elkarteren laguntza lortu du horretarako, tartean Nazio Batuen Erakundearen Suediako ordezkaritzarena. Akuilua izan nahi du, gazteek genero-berdintasunaz eta feminismoaz gogoetatu eta hitz egin dezaten. “16 urte nituenean nire ikaskideek irakurria izatea gustatuko litzaidakeen liburua da hau. Institutuko bigarren graduako ikasle guztientzako oparia da, baina baita guretzako eta etorkizuneko belaunaldientzako oparia ere”, adierazi du Clara Berglund Suediako Emakumeen Lobbyko lehendakariak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Kapitalismoak presionatu egiten du



Juan Mari Arregi

Egin dira Espainiako Estatuko hauteskundeak eta herritarrek euren ordezkari politikoak aukeratu dituzte. Orain gobernua osatu behar. Irabazle garbirik izan ez denez, alderdien arteko negoziazioa hasiko da. Jakina da programak ez direla berdinak, bereziki politika ekonomiko, fiskal, laboral eta sozialari dagokionean. Gobernua osatzeko orduan, badaude prozesua baldintzatu eta euren interesak inposatu nahi dituzten erakunde eta organismoak, herritarrek aukeratu ez dituzten arren. Hortxe daude burtsa, kalifikazio agentziak, Nazioarteko Moneta Funtza, patronala eta bere fronte mediatiko osoa (prentsa, irratia, telebista-kateak...).

Erakunde horiek ez dira demokratikoki hautatuak izan, baina jadanik hasi dute euren lana, eta ez dute etsiko helburua lortu arte: haien interesei men egingo dien gobernua edukitzea. Kapitalismoaren espresio nagusi den burtsak, bere gorabeherekin, bidea ireki du eskuinerantz. Ficht eta Moody's kalifikazio agentziek ere, kapitalismoaren beso diren neurrian, ohartarazi dute “goburu ahul edo alderdi erradikalen menpekoek” duten arriskuez. Bai patronalak, eta baita estatuko nahiz nazioarteko prentsa nagusiak ere, PP, PSOE eta Ciudadanosen arteko koalizio handi baten alde egin dute, austeritate eta murrizketa sozialen politikan sakontzeko, Rajoyren Gobernuak orain arte egin bezala. Europar Batasuna eta NMF ere ildo beretik doaz.

Ezkerreko alternatiba sendotzen ez den bitartean –gaur egun oso bananduta baitago estatuan eta Europan–, gobernua kapitalaren kudeatzaile huts baino ez dira izango. Ezkerreko alternatiba sendo batek, zailtasunak zailtasun, hobeto egingo lieke aurre herritarrek aukeratu ez dituzten finantza eta ekonomia botereei.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Aurten debekurik gabe ibili da Olentzero

IRUÑEA. Urtetako debeku eta egoera zailen ostean, aurten arazorik gabe ibili da Olentzero (Olentzaro, Onentzero, Onontzero, Orentzaro, Orantzaro... ere deitua) Iruñeko kaleetatik, eta lehenengo aldiz, Udalak harrera egin dio, joan den maiatzean hauteskondeek ekarritako udal gobernu aldaketa medio. Olentzeroren Lagunak elkartekoak pozik agertu dira eta gaineratu dutenez, "gure Olentzero ez da euskal Bizarzuri. Ez dugu ideia hori sustatzen, herri mitologiaren ideia baizik. Olentzero neguko solstizioa da, argia datorrela iragartzen digu". Argazkian, Iruñeko Iturrama auzoan egin ohi duten desfile berezia.

1.130 familiari ura eten diete Bizkaian azken bi urteetan

Asier Arrate Irukieta

@AsierArrate

Zerbitzua ez ordaintzeagatik kendu diete ura familia horiei. EH Bilduko Bizkaiko alkate eta zinegotziek proposamena luzatu zuten Bizkaiko Ur Partzuergoko batzarrean, arazoari irtenbidea eman eta ur hornidura ziurtatzeko. Baina eztabaidarik ez egitea erabaki dute partzuergoan.

Ez eteteko eskaria

Faktura ez ordaintzeak ez duela ur horniketa etetea ekarri behar, eta kasu horietarako EH Bilduk proposatu du negoziaketa prozesuak abiatzea ordaintzeko bideratu eta ura ez kentzeko ordaindu ez dutenei.

Eztabaidatzeari uko

Arrigorriagako Beterikoko plantan eginiko batzarrean, ordea, proposamena ez da eztabaidatu, EAJko eta PSEko ordezkariak "araudi arazoak" zeudela argudiatu dutelako.

Oinarrizko baliabidea

Aulestiko alkate Mikel Ansotegik nabarmendu du ura pertsona ororen "oinarrizko baliabidea" dela. "Ura etetea, horretarako arrazoiak kontuan izan gabe, onartezina da, ura ez da merkatuen logikaren arabera kudeatu behar".

EUSKARA



65

enpresa eta entitatek jaso dute aurten Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria. 41ek goi-mailako urrezko Bikain, 20k zilarrezkoa, eta 4k oinarrizkoa.

261

dira zortzi urte hauetan ziurtagiria eskuratu duten enpresa eta erakundeak. 28.400 langile inguru ari dira horietan.



350 MILIOI AHT-RA

AHT Gelditu!
plataformak deituta, elkarretaratzea egin zuten abenduaren 23an, Eusko Jaurlearitzak 2016ko EAEko aurrekontuetan Euskal Y-aren obretarako aurreikusitako diruztagatik (350 milioi euro) protesta egiteko.



PREKARIETATEAREN AURKA "KORRIKA"

Movistar-eko langileek osatutako Marea Urdina elkarteak egitasmo berria iragarri du otsailerako: prekariatatearen aurkako Korrika moduko bat egitea, Bilbo eta Bartzelona lotuz.



BIDADOR PASTORALA, DVD-AN

"Joxemiel Bidador, Iruñeko euskaldunak" pastoralaren DVDa karrikan da jadanik. Ikuskizunaren estreinaldi egunean -urriaren 10ean- Iruñeko Burguen Plazan zuzenean grabatutako irudiekin osatua.

Bake prozesua: eman beste aukera bat



Xabier Letona

@xletona

LAU URTE pasatu dira ETAk jarduera armatua utzi zuenetik eta aukera itzela utzi da galtzen gatazkari irtenbide egoki eta justua emateko; egia, justizia, erreparazioa eta ez-errepikapenean oinarritutako irtenbide bat eraikitzeko.

Ez da halakorik nahi izan, Estatuak irabazle eta galtzaileen eskema inposatu dio euskal gizarteari. Espainiako Gobernuak ez du nahi izan; EAJk eta Eusko Jaurlaritzak ez dute horren aurka egin; ezker abertzaleak bakarrik ezin du; eta gizarte zibilean ez dago indarririk instituzio eta alderdiak norabide horretara bultzatzeko.

ETA –eta ezker abertzalea– zokoratzeak eta egiazko bake prozesurik ez bultzatzeak ez du inondik inora elikatzen ez-errepikapena, guztiz kontrakoa baizik

2011n pentsa zitekeen ETAREN armak edo bere etorkizuna oso garrantzitsuak izan zitezkeela bake prozesu bat abiarazteko. Beti izan da hala irtenbide duinak bilatu diren munduko gatazketan. Eta hau, bat gehiago da, bere ezaugarri eta indar harremanekin, baina bat gehiago. Lau urte hauek erakutsi dute armak eta bestelakoak aitzakiak direla. Gaur egun ETA ez da ezer, sinbolo handi bat ez bada, bai bere etsaizentzat bai bere aterpean direnentzat.

EGIA, justizia, erreparazioa eta ez-errepikapena. Laukote ederra, baina egungo eskeman garatu ezinak.

Egia. Lekutan da. Egiazko prozesu eraikitzaile bat bultzatu izan balitz, gertatutakoaz askoz gehiago jakingo genuke –behin ere ez da dena jakiten, inongo gatazketan– ETak eta Estatuak egindakoez.

Justizia. ETAREN jarduera armatua gogotik zigortu da, Estatuaren errepresioa zigorgabetasun judizial eta politikoan da, izan legez kanpokoa –GAL, tortura...– edo legezkoa (heriotz ugari, Egin eta Egunkariaren itxierak, auziperatze masiboak...); mendekuaren justiziatik baino, justizia konpontzailetik tiratu izan balitz, gaur egun preso gutxi leudeke espetxeetan –eta akaso bat bera ere–, izan etakide, torturatzaile edo GALAREN X; eta justizia orekatuagoa zatekeen.

Erreparazioa. Garrantzitsuena, hildakoak, errepara ezina da. Dirua ongi da, baina aitortza da garrantzitsuena. ETak asko aitortu du beretik, Estatuak ezer gutxi. Eta hala ere, ekimen interesgarriak ari dira bideratzen, bai biktimizek haien artean, bai hainbar elkarreteratik eta baita Eusko Jaurlaritzatik ere. Komeniko litzateke gizarteko esparru askoz gehiagotan erreparazioaz hitz egitea, sakon eta era guztietako biktimizei begira. Gutxi egin da, eta batez ere ETAREN biktimizek erreparazioaz hitz egin da.

Ez-errepikapena. Ez dira jartzen ari egiazko oinarri sendoak gertatu dena berriz pasa ez dadin. Aurretik aipatu diren faktoreez luze eta zabal hitz egin behar da, memoriaz, autokritikaz... baina hori guztia bi baldintzetan oinarritu behar da: zintotasunean eta askatasunean. Ez da horietako bat bera ere bultzatzen. Autokritika eskatzen zaio

ezker abertzaleari, baina esaten zaio zer esan behar duen, hau da, ETak erabilitako biolentzia injustua izan zela eta ez zuela ezertarako balio izan. Eta ezker abertzalearen sektore zabalek ez dute hori sinesten, ez partekatzen, eta gainera ez dute askatasunik pentsatzen dutena esateko, espetxe edo zigor arriskua jasan gabe. Ez da eraginkorra.

Biolentzia hor egon da beti, hor dago eta egongo da, bai boterean eta baita hari erantzunez ere. Humanitatearen historian erabat txertatua dagoen fenomeno da, jendarteari eta pertsonari erabat atxikia. Edozein esparrutan ahalik eta agerpen txikiena izan dezala, hor dago koska.

GATAZKAREN aktore guztien arteko elkarriketa libre eta sakona da ez-errepikapenaren bermerik egokiena. Oraingo ereduak arazoak ezkutatu egiten ditu, ez bideratu. ETA –eta ezker abertzalea– zokoratzeak eta egiazko bake prozesurik ez bultzatzeak ez du inondik inora elikatzen ez-errepikapena, guztiz kontrakoa baizik. Hitz egin dadila argi eta ozen, eta atera ditzala bere ondorioak euskal gizarteak.

PPren mendeku ereduarekin, arazo politikoen irtenbide politikoak ukatuz, edo errepresio soilarekin... lehenago edo geroago historia errepikatzen aukerak badira. Hori diosku historiak: bakoitzak bere izaera desberdina du, baina hori dira karlistadak, 36ko gerra, ETAREN mende erdia...

Madril klabea da, baina Gasteiz ere bai. Egoera berriak eman dezake aukerarik Madrilen, bada ordua lema norabidez aldatu eta gizartea benetan aktibatzen egiazko bake prozesu baten alde. ■



Malkorik ez mangladien galeragatik: ekin 150 milioi zuhaitz landatzeari



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Mangladiak, itsas bazterrean marea beteak gerriraino estaltzen dituen eta bajamarrean sustraiak airean erakusten dituzten zuhaitzezko oihanak, suntsitzen ari gara planetako bazter guztietan. Guztietan? Ez: badira tropiko guztietan elkarte eta jendeak zuhaitz 'anfibiook' milioika landatzen ari direnak, milimetroka gora datorkien itsasoari aurre egin nahian.



Ehun milioi zuhaitz txiki berri Senegaleko itsas bazterrean bertan: munduko basoberritze ahalegin harrigarrietako baten irudiak eskaini ditu ARTE telebista franko-alemaniarrean Vu du Ciel (Zerutik ikusita) programan. COP21 biltzarren asteetan telebistek erakutsi dituzten milaka katastrofe beldurgarrien artean, baikortasun printzak pizten dituzten esperientziak pantailaratu nahi izan ditu Yann Arthus Bertrand zinegileak.

Dokumentalean dioenez, Senegaleko desafio ekologiko handienetako bat da itsas bazterreko mangladietako arrainen eta ekosistemen bizirautea. Eta Senegaleko mangladiak aipatutakoan, herroia deitzen da Haidar El Ali, munduko 100 ekologista ekintzaileen artean izendatua: Senegaleko milaka herritar konbentzitu ditu mangle txikiak milioika landatu ditzaten.

Mangladiak dira itsas bazter tropikal eta subtropikaletan mareak egunetan bitan estaltzen eta husten dituen eremuetak oihanak, zuhaitz eta sastrakaz osatuak. Ur gazitan bizitzera egokitu dira, itsas hegietako baldintza zailletara. Sustrai sistema bereziz hornituta daude, mareagoran ur gazi eta olatu artean oxigeno urriko lokatzetan bizirauteko eta mareabeheran enberrari airean zutik eusteko gai.

1980an planetan oihan bereziok 188.000 km² betetzen bazituzten, 2005era bitartean 152.000 km²ra murriztu ziren. 25 urtean %20ko galera,

gehienik industria, etxebizitza eta turismoarako egiturak eraikitzeke, gero eta gehiago otarrainxka edo izkiren haztegi erraldoiez betetzeko, edo inguruko ur gezak agorrazazi dizkieten urtegi, errepide, kanal eta abar urratzeko.

Mangladien txikizioaren erdian, ordea, badira horiek babesteko borrokatzeaz gain hondatuak edo arriskuan diren itsasadar, errio eta paduretako basatzetan zuhaitz gazte berriak landatzen saiatzen direnak, Vietnamen edo Bangladeshen bezala Madagaskarren edo Senegalen.

Esperientzia famatuenetako bat hautatu dute ARTERako, Senegalekoa. Haidar El Ali (1953) da Oceanium Gobernu Kanpoko Erakundearen arima. 1984an sortuz geroztik, Oceaniumek hiru ardatzetan biltzen ditu ingurumenaren aldeko lanak: itsas bazterreko oihanak mangle (*Rhizophora mangle*) gazteak landatuz biziberritzea, eko-turismoa eta honi lotutako urpekaritza, uretako bezala lehorreko kutsaduren garbiketaz gain.

2006an ekin zieten landaketei Casamanceko deltako Tobor herrian, suntsitutako padura batean 65.000 arbola sartuz. Frogatu ostean oin gazteen %85 aurrera ateratzen zutela –aurretik zenbait porrot jasanak ziren– 2008an 5 *millions de palétuviers* –izen hori dauka frantsesez mangleak– kanpainari ekin da, sei milioiz goiti landatzea lortu zuten 110 herritako 32.500 jende mobilizatuz hilabete eta erdian.

2010erako zifrak harrigarriak ziren: 62 milioi zuhaitz 5.000 hektareatan, 408 herritako 110.000 pertsonaren artean... Casamance eta Sine Saloumgo deltetako basoberritze arrakastatsuen jakin minez dabilen irakurleak hainbat erreportaje aurkituko du interneten, idatziz bezala bideotan.

Zer prezio dauka otarrainxkak?

Oceania Senegalen moduan, beste GKE eta elkarte asko ari da antzeko lana egiten munduan zehar, esaterako Mangrove Action Project. MAPek aldarrikatzen du lehen munduko fundazioetatik lortutako dirulaguntzak erabiltzen dituela elkarlanean mangladietan berezitutako ekologistekin, lekuko GKEekin eta administrazioekin.

Erakunde bakoitzak dauka bere berezitasuna. MAPek azpimarratzen du itsas bazterreko oihanak berreskuratzeko metodologia propioa daukala, garrantzia emanez landatzen diren zuhaitzen aniztasunari –zeharka kritikatu besta batzuek espezie bakarreko oihanak sustatzen dituztela–. Oihanberritze teknikan eta herritarren parte hartzean asmatzea garrantzitsua da zuhaitz txikitatik gehienek urte batzuen ondoren bizirik dirautela bermatzeko, areago klimaren aldaketarekin eremuok direnean itsasaldien eta ekaitz handien biktima minberenetakoak.

MAPek 130 lagun enplegatzen ditu denbora osoz eta proiektuak dauzka



Blue Venture Gobernuz Kanpoko Erakundearen argazkian, Madagaskarreko Antanandahy eskualdeko emakumeak mangle gorri (Rhizophora mangle) txikiak landatzen itsasoak marea betean metro bete baino gehiagoko urez estaltzen duen lokatzetan. Mangladiak itsasoari eustez gain ekosistema oso aberatsak osatzen dituzte, lekuko biztanleen bizimoduarentzako hil ala bizikoak.

Kanbodian, El Salvadorren, Indian, Indonesian, Malasian, Myanmarren, Sri Lankan eta Thailandian. Heziketa eta sustapen lanak egiten ditu ere Txinan eta Bangladeshen oraindik osasuntsu dauden mangladien defentsan.

Herrialde aberatsetako kontsumitzaileei ere badakarkie mezua MAPek: *Question Your Shrimp*, alegia galdetzeko gure izkirei. Bai, pintxoetan, entremesetan eta entsalada xumeenetan egunero jaten ditugun izkirei eta eguberrietako tripakadetan falta ezin diren otarrainxei. Askok dakite mangladien suntsitzeaz.

Marea arteko oihanak erruz suntsitu dituzte izkirentzako haztegiak eraikitze-ko, gehienak herrialde txiroetan: "Munduan barrena milioi bat hektareatik gora mangladi birrindu dira azken hiru hamarkadotan izkira haztegiak bertan

antolatze-ko", dio MAPek bere kanpainan. Itsas bazter tropikaletara iristen diren industriaren artean izkiren haztegiak da suntsitzaileenetakoa: eremu zabalak merke berenganatu, dena birrindu, etekinak azkar atera eta martxa!, atzean hondamendia baizik utzi gabe. Akui-kultura mota honek urtean haztegi-tan 8.000 milioi dolar eta saltokietan 50-60.000 milioi dolar balio duen jeneroa ekoizten du. Espekulatzaileentzako pagotxa, lekuko gobernu ustelez gain Munduko Bankuak eta beste erakunde gotorrek bereziki babesten dutelako.

Dena libre eta haizu duten erraldoiek burututako triskantzez gain, herritarrek berek eragindakoak daude. Populazioa ari da handitzen herrialde txiroetan, egurren behar dute sutarako, zura eraikuntzarako, gosea zerekin asea ere

bai. Leku epel eta hotzagoetako jendeok duela mende batzuk gureak suntsitu genituen bezala, orain bizi beharrak daramatza txiroak beren basoak eraistera.

Blue Venture GKEa, kontserbazio eta birlandaketa saiatzen direnetako beste bat, Madagaskarren ari da. Sylvia Paulot eta Kate England ekintzaileek kontatu dute Tziribihina delako Antanandahy herrixkan aurkitu duten giroa: "Bizitza gogorra da 400 biztanleontzako. Bizirauteko ez daukate itsasoa, mangladiak eta ibaia besterik, ez iturriko ur, ez azoka eta ez mediku. Gaizkileek atakutzen dituzte sarritan, eskuratu duten edo etxeetan jasota daukaten apurra ostuz". Ez dira mangleetatik oso ezberdin bizi, lokatzetan itota, edozein haize edo itsas kolperen beldur. Beldurrez, baina sakon errotuta". ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Jabier Muguruza, musikaria

«'Gutxiengo hautatuarentzat' etiketapean ibili naiz, baina mentalitatea aldatzen hasi beharrean nago»

Auditorioa ohi da, argiak itzal, isiltasuna, kantariaren ahotsa, pianoa inoiz. Ahotsa eta hatz kriskitinak Bernardo Atxagaren hitzen gainean hegan. *Paradisurako jaiok gara / hala nola txoriak airerako; / paradisuaz behera ez dugu / ezer ere nahi, ezer ere ez.* Zoragarria da emaitza, bizian ezin ahantzizkoa.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Irungo Moskun zitatu gara. Irunen beti Mosku. Zer du plaza honek?

Moskurekiko miresmen handirik ez dut. Hala ere, uste nuen erreforma politiko garaiko lekua zela Mosku, bertan biltzen ginen orduan ezkerreko jendea, baina ez, historialariari esker jakin dut hori baino zaharragoa duela historia Moskuk. Are zaharragoa da Urdanibia izena, baina, bitxikeria, gure amona Joxepak ez Mosku, ez Urdanibia, "Alameda" zuen leku honen izena. Ez naiz hemendik aparte bizi, leku atsegina da Mosku, baina idealizatu gabe.

Ezer idealizatzerik bada, gaur egun?

Eguneroko jarduna dut nik idealizatu, eguneroko lana, urtea joan eta urtea etorri nork bere ahaleginari eusteko desioa. Eta ez naiz, bakarrik, neure buruaz ari, oro har jardun nahiko nuke. Garai zailenetan ere hartutako bidean segitzea, modurik duinenean aritzea, norberak duen onena eman ez saiatzea. Mirestekoa da. Horretan sinesten dut.

Horixe erakusten du zure bideak, leial izan zatzaizkiola zeure buruari. Goiti-beheitiak ere izango ziren, bada, bide luze horretan.

Krisialdiak izaten dira, bai. Oraindik

orain, horixe esan diot neure buruari: "Jabier, diskoa egin duzu, hau da, inbertsioa. Kontzertuak egiten ari zara: zazpi eginak, oraindik batere ez kobratua, eta bitartean, denei ordaindu behar izan diezu zuk: musikariak, teknikariak, ekipoa...". Hala ere, aurrera egiteko ilusioa gailentzen da. Begira, azkenaldian, lagunartean, igual, eta topa egiten hasi eta "Osasuna!" hasten da jendea. Nik, osasunarekin batera, "... eta gogo!" esaten dut. Ilusioa, alegia. Denbora asko ez dela horixe galdetu zidan kazetari baterano batek: "Halako bidea duzu egina, Jabier: zerk pizten dizu aurrera egiteko ilusioa?"

Eta erantzuna?

"Hurrena datorrena nire diskorik onena izatea!". Eta benetan ari nintzen. Eta konbentzitu nago egin dudana azkena [Tonetti anaiak] onena ez bada onenetakoa izango dela. Horixe da ilusioa. Gure lanbidean jende asko ikusten dut zuloan sartuta, depresioak jota. Horregatik ematen diot inportantzia ilusioa eusteari. Ezinbestekoa da. Jakina, ni ez naiz nor inori leziarik emateko. Garai zailak bizi ditugu musikariok.

Eustea bera irabaztea dela diote.

Bai, gure lanbidean bai. Garbi.

Bideo interesgarri bat bada sarean, katalanek zuri egindako elkarrizketarena. Sariak aipatzen dira, besteak beste, eta diozu ibilbidea duzula saririk handiena. Horretan nago ni.

Ibairen ibilbidean badira zatiak, badira iturburu, adar eta meandroak... Non da zure iturburua? Bost urteko hura dugu iturburu, menturaz, Europako akordeoi txapelketa Holandan irabazi zuena?

Bost urteko hura bada, bai, iturburua, baina hura bezain iturburu duzu zortzi-bederatzi urteko Jabier hura, Agoitzen neskato bati kantua egin ziona, hitzak eta musika. Oso kantu txarra -nahitaez txarra!-, gaztelaniaz egina, artean euskaraz ez bainekien. Hortaz, haurtzaroan abiatzen da nire historia. Ondoren, rockero eta kantautoreekin egindako kolaborazioak daude. Bi mundu arrunt diferenteak, nahi baduzu, baina nik neure barruan lotu egiten nituenak. Askoren musika laguntzaile izan nintzen, baina horretaz aparte, gogoeta ere izaten zen haien ondoan; kantautoreekin, batik bat. Imanol, Xabier Lete, Mikel Laboa... haien ondoan radarra jasota egoten nintzen, eta uste dut asko ikasi nuela beraiengandik.



Jabier Muguruza

1960, Irun

Akordeoilari txikitandik, musikari eta idazle da oroz gain, bere bide guztiz pertsonala egiten asmatu duena. Hamalau disko ditu kaleratuak. Espainiako Musika Saria hirutan jaso da euskarazko kantagintzaren atalean, Liverpooleko McCartneyren musika-eskolan irakasle jarduna, errekonozimendu handia jaso Katalunian, literatur errezitaldiak egina Bernardo Atxagarekin, haurrentzako eta helduentzako literatura idatzia, antzerkirako musika egina... direnak eta ez direnak egin ditu Muguruzak, bere buruari zintzo eta leial.

Rockero eta kantautoreak gorabehera, zuen etxean bazen musika girorik.

Bai, haurtzaroan gurasoen bidez jaso nituen lehenengo erreferentziak. Horra musetta. Asko entzuten zen gure etxean. Ikaragarri gustatzen zitzairen akordeoia gurasoei. Baita hemengo trikitia ere. Gurean ez zen musetta bakarrik. Jakina, nerabezaroan besterik izan zen, hiru anaiok bata erosi eta bestea lagunekin konpartitu hasi ginenean. Beste garai bat zen, beste giro bat zen gure artean ere: batak deskubritzen zuena besteari jakinarazten zion. Horrela aberastu ginen. Nire bi anaiok niri ematen didate meritua, neuk ekartzen nituela diskoak diote, baina ez da bakarrik nik egiten nuen gauza. Denok egiten genuen.

Les Mecaniciensen ezagutu zintugun askok. Asmakizuna kantu beti gogoangarri hura.

Baina Les Mecaniciens baino lehen, *Ja, ja* diskoa aipatu beharko genuke, haur eta gaztetxo artean arrakasta handia izan zuena. Les Mecaniciens, berriz, *Ja, ja* gisa bat zen, helduentzat. Baina ez zuen arrakastarik izan. Lehen diskoa egin, eta hainbestean. Bigarrena, eta berdin. Hirugarrena, eta antzeko. Ez zegoen aurrera egiterik. Horrekin batera, beste faktore bat, neure jarrera izan zen: “Jabier, hasi kantari, hasi heure modura gauzak esaten, bestelako koplarik gabe”.

Bide pertsonalari ekin zenion, zure lanaren ezaugarri den horrix: bide pertsonala.

“Ahots propioa” diote literaturan, eta obsesioa nuen nik ahots propioa. Hor, bestalde, hizkuntza dator. Diote gure hizkuntza ez dela traba ez *handicapa*, baina nik bestela uste dut, batzuetan traba dela, nahiz eta abantailak ere badituen: ahots pertsonala eskaintzeko garaian, euskaraz aritzeak asko laguntzen du. Esateko modua asko landu dut harrezkero. Eboluzioa izan da, dudarik gabe. Oraindik orain Gasteizen izan naiz, Filologia ikasleei hitzaldia egiten. Lehen diskoko kantu batekin batera, azkeneko honetakoa jarri nien entzungai. Oso jende argia zegoen tartean, eta berehalakoan antzeman zioten bilakaerari: lantze pertsonala, irakurketak, musika ezberdinak entzutea, jazz, musikari jakinak...



Garaio liburu-dendak antolatutako “Paperezko Kontzertuetan” izeneko saio batean.

Bilakaera horri haize eman zioten Katalunian.

Loteria tokatu zitzaidan Katalunian, eta ez naiz diruaz ari. Uste dut horrela adierazi ezinik ez dagoela, gertatu zaidana ez baita normala. Errekonozimendu handia dut han. Iaz, esaterako, Barnasants jaialdiaren barruan egindako kontzertu onenaren saria eman zida-

ten. Hori nekez irudika nezake hemen. Gauza asko gertatu zaizkit Katalunian. Kataluniak eman didana aletzen hasiko banintz ez nuke inoiz bukatuko.

Inor ez da profeta bere herrian.

Bernardo Atxagaren Xolak esaten du inor ez dela kroketa bere herrian... Hemen gehiago kostatu zitzaidan entzu-

Zibilizazio aldaketa

“Neurologoak, psikologoak, pedagogoak eta gainerakoak aztertzen ari direnez, bestelako burmuin bat garatzen ari da, hiperestimulazioaren ondorioz. Lau-bost gauza aldi berean egitera egokitzen ari omen da burmuina, hori ez da txarra, baina sakon pentsatzea bukatzen ari omen da. Hortik ezin etorri ez entzuketa sosegaturik, ez irakurketa lasairik. Hori bukatu dela ematen du. Denboraren pertzepzioa aldatzen ari da, eta horrek, orain arte, zibilizazio aldaketa ekarri du”.

Kolaboratzaileak

“Azkeneko diskoan Gari dut kolaboratzaileetako bat. Askotan horixe leporatu izan didate, atzerrian bilatzen ditudala laguntzaileak. Aldiz, etxekoarengana jotzen dudanean, mutu geratzen dira kolaboratzaile bila atzerrira jotzen dudala esaten dutenak. Bitxia da. Oraingo honetan, esaterako, Pablo Guerrero mitikoa dago, eta harekin batera, Gari, hura bezain mitiko. Beti izan dut garbi euskaraz aritu nahi nuela, eta, aldi berean, kanpokoa eta etxekoa uztartu. Beti izan naiz borroka horretan”.



“Konbentzituta nago egin dudan azkena onena ez bada onenetakoa izango dela. Horixe da ilusioa”

learekin konektatzea. Katalunian, aldiz, berehalakoa izan zen erantzuna. Klub txikietan hasi nintzen –Harlem, La Cova del Drac...–, baina segituan zabaldu zen hotsa, Katalunia osora. Hemen gehixeago kostatu zitzaidan. Lehen diskoak egin eta, arao eta birao!, erantzun handirik ez!

Kataluniak eman dizuna aletzen hasiko bazina ez zenukeela atertuko esan duzu. Liverpool ez zizun Kataluniak eman.

Ez, hura beste bidetik etorri zen. Besteak beste Paul McCartneyk fundatutako musika eskolako zuzendari Arthur Bernsteinek ezagutu ninduen, eta bertara eramateko interesa agertu zuen. Dudak zituen hizkuntzaren inguruan, han koristak oso inportanteak baitira, eta haiek euskararekin nola moldatuko ziren zalantzak baitzuten Bernsteinek. Horrela, korista ipar-amerikarra, suediarra eta kataluniarra gertatu zitzaizkidan ondoan. Jakina, miresgarriak hiru kantariak ere. Hura oso inportantea izan zen niretzat. Askok lagundu zidan nire buruarengan sinesten. Hemen lanak nituzkeen neure buruarengan sinesten. Alde horretatik askok lagundu dit kanpora irteetarako, askok lagundu dit Bartzelonak, askok Madrilek, askok Liverpoolek. Orduantxe esaten diozu zeure buruari: “Ez gara hain txarrak izango! Aurrera!”. Zuk beste inork ez badu

sinesten egiten duzun horretan, zaila da aurrera egitea. Jackson Browne bategi esatea Kiko Venenorena eta zurea direla inoiz egin dizkioten bertsiorik onenen egileak –eta, bide batez, urtero garai honetan bere gaitela zoragarriak bidaltzea–, [barrez dio] ... horrek asko laguntzen du.

Gutxiengotzat jo izan duzu zeure musika.

Bai, “gutxiengo hautatuarentzat” etiketapean ibili naiz, baina mentalitatea aldatzen hasi beharrean nago, zeren eta, Durangoko Azokan, adibidez, harrera ezin hobea izan du *Tonettik*... Barnasants jaialdiak gonbidaturik egindako diskoak, hemen *Berria* egunkariak banatu zuenak, berdin, oso harrera ona. Gutxiengoari begiratzen diot, bai, baina gutxiengo handiari. Bestalde, oraingo mundu honetan, kultura jasaten ari den pisu eta presentzia galera ikaragarria da. Izugarria iruditzen zait. Horixe irakurri diot oraindik orain Richard Fordi, eta bat nator haren iritziarekin. Horrekin batera, bada beste egitate bat: kulturgintzan ari garenok erdi galduta gabiltza, biderik ez dago, noragabea da nagusi, idazle, musikari, kazetari... etorkizunari ezin antzemanda gabiltza denok. Jarrera kritikoa izan, erne egon, formula ezberdinak saiatu, eta eutsi. Ez dago besterik. Amore emanez gero, kito, gureak egin du.

Nola entzunarazi zeure ahotsa, zarataz betetako munduan, ingeles musika hezurretaraino entzunarazten diguten garaien?

Hiperestimulazioak ondorio latzak izango ditu belaunaldi berrietan. Horretan dira pedagogok eta psikologok ere. Musika ez da adar bat besterik. Leporaino nago leku guztietan musika entzuten. Isiltasuna behar dugu. Isiltasunaren bidez baloratuko dugu musika. Beti errebendikatu dut isiltasuna, nahiz musikan nahiz oro har. Bestalde, zein egoeratan heldzen zaigu musika orain? Edozein euskarri kaxkarretan entzuten dugu. Akordatzeko naiz zertan gastatu nuen nire lehenengo dirua, orain dela kasik 40 urte: musika ekipo txukun bat erosi nuen Hendaian, eta ezkutuan ekarri etxera, kontrabandoan. Oraindik gordea dut. Kontrabaxuaren hotsa eta! Gozamen hutsa!

Gozamen hutsa da Jabier Muguruza ahotsa eta hatz kriskitinak beste laguntzarik gabe entzutea.

Nik horretan sinesten dut, ez dago besterik. Iaz edo, Camprodonen [Girona, Katalunia] kontzertua egiteko deitu zidaten. Gero, kontzertu egunean, goizean, bertako musika eskolako umeen aurrean ere arituko ote nintzen. Bannuen kezka, baina baietz. Sartu aretora, 300 bat haur eta gazte, batzuk txiki-txi-

kiak. “Zer izan behar du honek? Hau da desastrea!”, pentsatu nuen. Mikel Azpiroz eta biok hasi ginen, pianoa, ahotsa, eta haur eta gazte haien parte-hartzea. Ordu eta erdi egin genuen, zoragarria. Adi-adi denak, isiltasun erabatekoa. Komunikazioak funtzionatzen du. *Tan petita* a capella kantatzen jardun dut Katalunian, eta horren inguruan sortzen zen giroa guztiz potentea zen. Paragabea.

Giro horretakoa da zure musika.

Nik neure apustu pertsonala egin dut, baina, adibidez, Ferminen azkeneko diskoa entzun –instrumentazioa, erritmoa, New Orleanseko giroa–, eta oso interesgarria iruditu zait emaitza. Hemen nork bere ahotsa du, nork bere ezaugarriak, eta haietara errenditu behar da. Suzanne Vegak esaten zuena: “Ahots txikiak dut, istorio txikiak kantatzeko”. Inportantea da munduan kokatzen jakitea. Horretarako bide luzea egin behar da.

Asmatu duzu.

Borroka horretan nabil. Oso zorrotza naiz neure buruarekin, beti galdezka,

**Azken hitza:
Elkarrizketa**

«Egiako topaketa. Ez galdera-erantzun sorta bat, korrika eta presaka egin, ezpada zeremonia txiki bat, leku lasai batean bazkari erlaxatu batekin hasten dena, eta urgentziarik gabeko berriketa batek burutzen duena» (Jabier Muguruza, *Encuentros con alma*, Alberdania, 2011)

beti bila, beti. Oso inkonformista ere bai alde horretatik.

Hamaika lan dituzu eginak. Musikari zara, baita idazle ere, antzezle ere ari izan zara, elkarrizketak egiten ere bai. Zure *Entrevistas con alma* liburua ekarri dut lagun, Jabierrek Jabierri zer galdetuko ote liokeen jakin nahirik.

Zer galdetuko niokeen?... Hauxe: “*Tonetti anaiak* defenditzea dagokizu orain,

diskoa atera berria denez gero. Dena den, zein izango duzu hurrengo apustua? Nondik jo nahiko zenuke?”

Diskoa atera berri, eta bide berri bila? Ez adarrik jo!

Bai, bada! Ez dizut alferrik esan! Egin ditudan hamalau diskoak hartu, eta garbi ageri da bertan lotura bat, zerbait komuna, ikuspegi eta mundu ikuskerak bat bera osatzen duten elementu sorta bat –ahots propioa, alegia–, baina, horrekin batera, bilaketa lana dago disko bakoitzean, progresio bat, eta ez nahitaez instrumentazio gehiago baliatzera, biluztera ere bai, momentu jakin batean. Oraingo diskoan, jazz formatura itzuli sonoritate zehatz baten bila, eta guztiaren gainetik, gordin jardutea hobetsi, erabateko isiltasunean –El Vendrelleko auditorioan, eman dezagun–, batere efekturik gabe. Horixe da bilaketa, nire kasuan. Lehen ondo egin, lortutakoa, errepikatu, ala sortzaileari dagokion jarrera izan eta kritiko jardun, beti urrats bat aurrera egin nahian, arriskatzen ibili? Horretan entretenitzen naiz ni. ■

KUTXA EKO GUNEKO HAUR PARKEA

Doako aparkalekua

Prezioa **6€**

0-12 urte bitarteko haurrentzat

ZATOZ NATURAREKIN JOLASTU ETA IKASTERA!
Familiarentzat kafetegia dugu

www.ekogunea.eus

Eguberritan irekita

urte guztiko **ORDUTEGIA**

Ostirala 16.00-20.00
Asteburua 11.30-20.00

Abendua
21 22 23 26
27 28 29 30

Urtarrila
2 3 4 7
8 9 10

kutxabank **k**

haur parkea **ekogunea**
kutxa FUNDAZIOA
www.ekogunea.eus

Inperioen gainbehera

ragan azaroan *The Sunday Times* aste-kariak eta gure *Larrun* hilabetekariak erromatar inperioaren gainbeherari buruzko bi artikulu argitaratu zituzten. Bietan, inperio horren endekapena deskribatzeaz gain, berorren zergatiak estudiatzen dira. Gainera, zenbait hurbilketa egiten dira gaur egungo inperioen egoera azaltzeko eta zenbait aurreikuspen egiteko.

Erromatar agintariak eta pentsalariak ez bezala, europarrok eta iparramerikarrak kontziente gara gure inperioen etorkizuna kapitalismoarekin lotuta dagoela. Halabeharrez, bata bestearekin erlazionatuta daude. Horrela, jadanik literatura oparoa daukagu. Hor daukagu ia ahaztuta Erromako Klubaren *The Limits to Growth* eta beronen ildotik gauzatutako ekarpenak.

Lurra eskasa daukagu munduko populazioa elikatzeko eta ongari kimikoei, epe luzera, lurraren etekinak endekatu besterik ez dituzte egiten. Halaber, petrolio, "urre beltza", erromatarrentzat urrea zen bezala, sistema kapitalistaren oinarria da eta denboraren poderioan zailtasun handiagoak daude lur-azpitik ateratzeko eta merkatuetan ipintzeko. Beraz, petrolio urritasunak eragin negatiboa izango du kapitalismoaren biziraupenean eta bere ordezkoa aurkitzea ez dirudi erraza izango denik.

Erromatarrek ezagutu zuten bezala, Europa eta AEB etorkinez (barbaroak) inguratuta gaude eta gure artean kokatu nahi dute, batzuek bizi ahal izateko, eta beste batzuek inperioen zutabeak kolokan eta auztitan ipintzeko. 3 milioi iritsiko omen dira Europara hurrengo urteetan, eta Jordania, Libano eta Turkian hainbat eta hainbat pertsona daude erbesteratuta Europarantz jauzi egiteko prest. Horiei Afrika txirotik etengabe hurbiltzen ari direnak erantsi behar.



Baleren Bakaikoa Azurmendi
EHU-KO IRAKASLEA ETA EKONOMIALARIA

Erromatar agintariak eta pentsalariak ez bezala, europarrok eta iparramerikarrak kontziente gara gure inperioen etorkizuna kapitalismoarekin lotuta dagoela. Halabeharrez, bata bestearekin erlazionatuta daude. Horrela, jadanik literatura oparoa daukagu. Hor daukagu ia ahaztuta Erromako Klubaren *The Limits to Growth* eta beronen ildotik gauzatutako ekarpenak

Europa etorkin uholde horiengandik babesteko harrresi fisikoak eta militarrik ipintzen ari da. Baina egunetik egunera zailago eta konplexuago egiten da lurralde aberats eta oparo hau "defendatzea". Gainera, defentsak sustatzeko diru publikoen premia handiagotzen ari zaigu eta ekonomiaren ikuspegitik ere zaildu egiten ari da barne bakea ziurtatzea. Jadanik hasiak dira liskar ugari etorkinen aurka: oroitu Alemania, Herbehereak, Frantzia eta abar.

Bestalde, sistema kapitalista inperial funtzionatzeko neurri eta erakunde berriak behar ditu. Duela bi mende, estatuak oso gutxi esku hartzen zuen jarduera ekonomikoan, estatua oso meharra baitzen. Denborarekin, derri-gorrez, estatua konplexuago bilakatu da eta erabakiguneak urrunduz joan dira. Horrela, gaur egun, sistema ekonomiko esplotatzaileak behar den moduan jarduteko erakunde lar konplexuak eratu behar ditu, zeinak hiritarrendandik kontrol lausoak jasango baititu. Hor daude Troika, Europako Batzordea, Nazioarteko Diru Funtza, Merkataritza Mundu Erakundea, eta horien gainetik ideologia mamitzen dieten Bildelberg Kluba, Davoseko Foroa, Trilateralala, non munduko aberatsenek, eskuin eta sozialdemokrata alderdi politikoei, sindikalista ustelek eta zenbait irakasle "ospetsu" parte hartzen duten. Horiek guztiek egosten dituzte munduko erabaki eragingarrienak.

Erromatarren inperioaren garaian zientziak ezin zezakeen aurreikusi zer zetorkion orduko gizarteari. Hori gaur egun ez da horrela ematen. Oro har, badakigu mundua nondik datorren eta nora doan. Neurriak hartzeko garaian gaude, baina horretarako borondatea behar da. Orain arte ikusi dugunez, nahiago da gure planeta hondamendira eramanez, aberatsenen egoera ukitu baino. Parisko COP21 adibidea da. ■

Oi gu hemen, eten puntutan...

Etxe honetarako itzuleran, urratsa neurtu artean, dorpea zait lehe-na, gehiago baizik ez azken asteak alferki emanik gogoetarik idatzi gabe. Gaitegia libre eta zabala izateko, bitxiki zait neketsu. Horra gogotsu diodala, erranaldiak hasi arau eten puntuz bukatu gabe lerrokatzen doazkit. Banengoan bazetorkidala heziketa katolikotik, ez hastapenetik hasteko gaiztakeriatan. Banengoan agian gai gehiegi banukeela jorratzeko, ezin jakin nondik has. Zeren, zer debru, baita zer lerroka: gerla egoera, kultur emanaldiak trumilka, *Maiatz* aldizkarian Lekore taldean bezalatsu gazte andana poesiari lotua, AHTak atzera, Herrikoa-ren kanpaina, FN haizatua baina ezkerrera egiteko bezperan, HELEP...

Suspensiboak bezain deserosorik ez da. Gaztetan irakasle batek debekatu zidan hauen erabiltzea. Zioenez ez zioten batere grazia-rik, jakin minik eragiten, frustrazioa baizik: "Hiru puntu eta ez dakigu! Hiru puntu: asma ezazu segida? Hiru puntu: ez dakit eta jarri nahi duzuna? Hiru puntu eta zer? Ez naiz ausartzen? Ez dakit zer pentsa? *A suivre?* Ideia argi ez duenak jartzen ditu horiek: garbi daukanarena berez etzatera dator paperera".

Baiki. Baina horra. Iparraldetarrak ba al dakigu xuxen zertan garen? Ondoko asteetan hasiko dira Herri Elkargoaren aldeko bozak, herriz herri, martxo bitartean eta honen haritik gure errealitatearen egokitzea. Gaurkoz iritziak eta sustut kafetegietako mahai izkintan paper puska purtzupilkatutan egin kalkulu pragmatikoek aldekoa ematen badute, suspenseak hor dirau eta gu zintzilik, gure jardunean, solasetan, gogoetetan. Orain arte mintzatuak dira aldekoak




Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo

eta itxaropentsuak; kontrakoen uhuldea noiz altxatuko zain. Berriki arte burutu dira gogoetak, trantsizioa nola egin, epeak, konpetentziak, zerbitzu eta langile. Gauzapen eta antolaketa fase



Antton Olariaga

horretatik hara badira kezka potoloak, politikoak hots, ekonomia, arlo soziala, fiskalitatea noski, lehenasunez tratatuko dituzketenak hots. Eta horien aldean, euskaldunoi berezkoak zaizkigun gai kuttunak, hala nola mugaz gaindiko harremanak, euskararena eta kulturarena, zein, merezi izan badituzte lan talde bereziak eta gogoetaldi gauak, segur aski kronologikoki beste guzien ondotik tratatuko baitira. Denbora gehiago geroaren bideratzeko erranen didazue? Baliteke. Eta badira argi ez direnak: noraino egonen gara aitzinatuagoak?

Bizkitartean, bozen emaitza definitiboa ikusi artean, epilogoak puntu suspentsiboz idazten da. Hiru puntu.

Nehork ez baitaki zer gertatuko den ez eta zer jar daitekeen kapitulu horretan. Ezin baita jakin kargudunek nolako iparra emanen lioketen. Nehork ez baitaki epilogorik zinez, azken finean, bi menderen buruan, zinez egonen denez bat. Hiru puntu nehorik ez baitu imajinatu nahi segida dramatikorik. Erreserba egokia baitaiteke, dudak plazaratzeko goizegi.

Iparraldea horrela baita nik uste momentu honetan, hatsa bahiturik bezala, baldintza hipotetikoz blai, perpaus kontzesiboz betea. Horrela ikusten dut behintzat nire burua, laino artean baino, goaitan. Eta berdintsu ingurukoak, ondoko aulkian jarria denari oldartu gabe, ukendurik pasa gabe, galdera frankorekin baina kontsentsuan. Bon, badaitezke ere zenbait, andana, futitzen direnak edo galduak, noski.

Dezepzioak ohiturak aitzinetik mentalizatzen irakasten du eta zuhur jokatzeko gogoetetz eta xuhur hitzez...

Jarraituko du... ■

Ez da futbola



Inma Errea
KAZETARIA
@inmaerrea

Gazteago eta kazetariago nintzelarik, ilusioa eta jakin-mina izaten nituen hauteskunde arratsetan. Baina gero eta arreta gutxia- goz jarraitzen ditut, harik eta benetako emaitzak agertu arte. Nire ikusmira aldatu da, eta halako gauei gero eta antza handiagoa hartzen diet futbol partidei buruzko igandeetako emanaldiekin. Eta falta izanen da agian, baina igandeetako futbolak ez du inoiz piztu nigan interes handirik.

Hauteskunde arratsak zundaketen emaitzekin hasten dira beti. Hau da, kinielekin. Futbolari buruzko emanaldietan bezala, emaitza guztiak aurreikusten dituzte, eta adituak dantzan jartzen dituzte, ia ziurtzat joaz balizkoa baino ez dena. Denbora-galtze hutsa iruditzen zaizkit zundaketak: halako batean ikus-entzuleok ohar-tzen gara aurreikuspenek huts egin dutela, eta haien ondorioak entretenigarri bat besterik ez direla izan, benetako emaitzak iritsi arte. Baina horiek, benetako datuak, poliki-poliki pantailetan agertu ahala, ahaztu egiten ditugu (ahaztarazten digute?). Igandeko partiden emaitzei buruz alde aurreko analisisiek bezala, zundaketak gehiago dira ikuskizun benetako informazioa baino.

Baina gutxien gustatzen zaidana, futboleant eta hauteskunde-gauean, lehiarako grina neurri-gabea da. Biek dute lehia osagai, baina bereziki gogaikarria iruditzen zait, batez ere, hauteskun-

deetan, irabazi nahi temoso hori, beti eta kosta ahala kosta.

Ematen du alderdiek, eta sistema politikoe-ko oro har, ez dutela batere ongi eramaten eraba-teko irabazlea ez izatea. Demokrazia batean niretzat ezaugarri interesgarrienak direnak –au-keren aniztasuna eta irabazte-galtze erlatiboak-gaizki ikusita daude, demokraziarako txarrak direlakoan. Hori, alajaina, gauzak nahastea da: ulergarria da sistemarako zailagoa izatea –eta politikarientzat nekezagoa– boterea alderdi askoren artean partekatu behar izatea. Ulergar-ria da, zentzu horretan, jende askok alderdi-bi-tasuna hobestea. Baina horrek ez du esan nahi demokraziarako eta jendearentzat txarra denik: alderantziz, alderdi-aniztasuna oso onuragarria izan daiteke herritarrentzat, iritzi berekoak ez direnak hitz egitera eta eztabaidatzera behartzen dituen heinean.

Benetako demokrazia ez da futbol liga bat: lehia bigarren mailan utzi beharko luke, eta he-rritarren aniztasuna lehenetsi. Eta behin betiko onartu beharko luke herritarrak ez direla oker-tzen askotariko hautuak egiten dituztenean. Eta futboleant, entrenatzaile onak jotzen ditut eredu: haien taldeak partida bat galtzen duenean, ar-dura onartu, eta galerari onura ateratzen dakite. Horretan merezi du berdintzea futbola eta demo-krazia! ■

Dagigun



Itxaro Borda
IDAZLEA

Nik ere hartuko dut 2016an Durangon antolatuko den Ibilaldiaren lema ederra, berehala hor dugun biharra desioz eta ke-menez apaintzeko. COP21 gailurra bukatu zen, indartsuenek itotzear dauden herrialdeen desti-no ankerra presio tresna gisa erabiliz onartu eta izenpetu xede pietosak lerrotatuz. Etorkizuna, bekaizkeri haroaz bero datorkigu.

Baina norabide aldaketa batez ere amets dagi-kegu –aldion potentzialaren trinkoa ontsa baliat-uko zaigu: zergatik ez litezke adibidez, estatuen premia osasun politikak enpresa kutsatzaile erraldioen interesak defendatuzetik geldituko?

Gaixotasun ugariak eragiten dituzten molekula zitalak irensten ditugula badakite denek, baina diskurtsoak alderantziz doazkie: garapenaren onurarako, ezin dira diesela eta beruna debekatu.

Tabakoaren aferan egin zuten bezala irudi-ka dezakegu kotxe super-hornitu eta garestien aldeko publizitateak kenduko direla pantaila eta egunkarietatik, janari-zaborrak edo garbitzeko produktu kimikoak laudatzen dabiltzanak hala-ber eta ikusiko ditugun erreklama bakarrek Mikel Urdangarinen kontzertuak iragarriko dizkigutela.

Anartean, urte berri gurbil eta zoriontsua guz-tiei. ■

Ate birakarietako giltzak

Duda handiak nireak, beti, ene ikerketetan: handiagoak nahiko nituzke oraingoan, hauteskunderen biharamunean. Izan ere, egoraren ikerketak baikorrak direnean, hobe deritzot, badaezpada ere, guztiz ez sinesteari haiekin. Baina ezkorrek direnean, nahiago izanen nuke haiekin batere ez sinetsi.

Hedabideen ezinbertzeko bazka dira urgentziatzko analisiak, berauen eskaera batzuei edo bertzei luzatuz. Baina zer lortuko ote? Urgentziatzko analisiak ala larrialdietakoak? Pentsa: direnak direlakoak emaitzak, denenak guztira zein lehiakide bakoitzarenak, onak zein txarrak, azalpenak eman behar berehala; hots, urgentziatzko analisiak eman behar; eta batzuen analisiek, beti, larrialdietako analisiak dirudite, eba-kidura-edo zirt edo zart egin ondoren, matxuraren diagnostikoa uste bezain ezkorra ez izateko ahaleginka, Zainketa Intentsiboko Unitatean ez sartzeko modukoa behintzat.

Bi digresio orain arte, gaiari heldu aurretik. Aski esanguratsuak, nik uste, biak, digresio izanik ere. Baina hirugarren bat botako dut: hiltzaile omen da tabakoa erretzea (bizitza delarik, ordea, hilkortasunaren baldintzarik ezinbertzekoena); ba, hemen nauzue erretzeari



Bixente Serrano Izko

GEROA BAI-KO KIDEA

@Bixentesi

Hainbertze dira ene neuronon itsasoan sartzen diren giltzak, dagozkigun eremuetako ateetakoak, non haur-abestia dabilkidan buruan urpekari: "Non daude giltzak?"

emanda, oraintxe burura datorkidan ideia bakoitza nola edo hala biribildu eta hurrengoarekin logika sentiberegiarekin ez lotzeko ahaleginetan, kezko eraztunak gora bota eta bota. Tabakoa-rena, hauteskunderen kontuak bezala gehien-gehienetan, hil ala biziko kontua ez delakoan.

Hainbertze dira ene neuronon itsasoan sartzen diren giltzak, dagozkigun eremuetako ateetakoak, non haur-abestia dabilkidan buruan urpekari: "Non daude giltzak?"

Lehorreko lurralde dugu Nafarroa: eskuina, bagenekien, Monterrosoren dinosauroaren parekoa da; lau koalizioetako gobernuaren alde apustularietako batek, autogobernu eta euskaltzale-tasun arloetan ezezagun handiena duguna izan arren, jauzi handia egin du aurrera, bertze hiru kideen boto-emaileak dezente xurgatuz; gaurko nafar gobernuaren uhalen gidariak, bertze bi bidaideek bezala, behera jo du, Senatuko ordezko bat lorturik dena dela, Aldaketaren aldeko guztiak lagun... Urpekari trebeak beharko ditugu giltzen bila, are trebeagoak geure urak lurpekoak direnez.

EAEn, Iglesias irabazle, ezker abertzale ofizialaren kontura hein handi batean: abertzale erradikal asko, antza, abertzale bainoago erradikalak ditugu, Estatu eremuko indarren arraste arrain-sarda, nolako itsaslasterrak dabiltzan.

Estatu eremuan, bigarren itzuliaren irrikan Iglesias, baina itsasalde itzel luzeak ditu penintsulak, urpekariak giltzen bila luzaro entretenitzeko modukoak: areago, ate birakariaren jabeek nekez botako dituzte giltzak itsasora. ■

gure artean euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.



www.bizkaia.net



Argia 2016ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari

Historia gaiak
Hitzokeiak
Etixerako gomendioak
Zientzia
Baratzea
Errezetak
Efemerideak
Santuak
Euskal izendegia
Eguzkia, ilargia eta mareak



Eskaerak:

www.argia.eus/denda · denda@argia.eus · ☎ 943 371 545

AUTOBIDE ELEKTRIKOA SISTEMAREN GOI TENTSIOKO ZAINAK

Espainiako Ministroen Kontseiluak urrian onartu zuen 2015-2020 Energia Plangintza. Deikaztelu (Nafarroa) eta Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa) artean Red Eléctrica de Españak eraiki nahi duen 400 kV-eko linea ageri da bertan. Proiektua gauzatzeko urrats bat gehiago.



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Gure zerua alde alde zeharkatzen duten kablez josita dagoela ez gara ohartzen maiz. Euskal Herriko paisaian ohikoak bihurtu dira elektrizitatea garraiatzeko lineak, eta goi tentsioko hainbat ere baditugu lehenagotik.

2011n aurkeztu zuen Red Eléctrica de Españak (REE) 400.000 volteko linearen proiektua, Deikaztelu eta Ezkio-Itsaso lotuko zituena. Ez zen, ordea, hutsetik hasitako proiektua, alde batera utzitako Deikaztelu-Gasteiz goi tentsioko linearen jarraipena baizik. Espainiako Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zutenaren arabera, “ingurumenari eragingo lizkiokeen kalteen eta egondako oposizioaren eraginez” bota zuten atzera lehen proiektu hura, eta Deikaztelu-Itsasokoaz ordeztu.

“Urrunekoa hurbildu eta hurbilekoa urrundu”

Alberto Frias abokatu eta Autopista Elektrikorik Ez plataformako kideak argi azaldu du zertan datzan autobide elektrikoaren ideia: “Lurreko autobide-

deen antzekotasunak ditu, baina airetik doa: autobideetan herrietako sarrera eta irteeretan bidesariak dauden bezala, goi tentsioko lineak azpiestazioak behar ditu energia bertatik hartu edo hara igotzeko”.

» **Goi tentsioko lineak esparru askotan kaltetuko lituzke herriak. Besteak beste, Natura 2000 Sareko eremu babestuen arteko hainbat korridore ekologikotatik pasatzen da**

Hasiera batean proiektuak Deikazteluko azpiestazioa jasotzen bazuen ere, onartu berri duten 2015-2020 Energia Plangintzan ezabatu egin dute. Horrek esan nahi du ezinezkoa izango dela linea tokiko beharretarako erabiltzea.

129 kilometroko ibilbidea izango luke goi tentsioko lineak, eta bide horretan Nafarroako eta Gipuzkoako herri eta kontzeju ugari izango lirateke kaltetuak. Dorreak Euskal Herrian orain arte ikusi gabekoak izanen dira proiektua aurrera ateratzen bada: 85 metroko altuera izan dezakete, Bilboko BBVAren dorreak adina. Horrez gain, elektrizitatearen joan-etorrirako linea denez, kable kopurua –eta eragina– bikoiztu egiten da: hemezortzi eroale osotara.

400 kV-eko linea berria nahikoa ez eta lehenagotik ibilbide berean dauden Orkoien-Itsaso arteko 220 kV-eko bi lineak indartzea ere jaso dute Energia Plangintzan. Irurtzun inguruan elkartu eta Gipuzkoara paralelo joango liratekeen zati horretan eragin elektromagnetikoa “ikaragarria” izanen dela azpimarratu du Friasek.



Goi tentsioko linea Ezkio-Itsason. Red Eléctrica de Españak eraiki nahi duen linea berria inguru berean egongo da, eta erdiz erdi zeharkatuko du Goierriko bailara gipuzkoarra, besteak beste.

DANI BLANCO



AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ

2014an egindako Lurkide Egunean, proiektuak kaltetutako herrietako talde eta elkarte ugariak goi tentsioko linearen dorreak egongo diren 247 guneetan bildu ziren. Argazkian, 35. dorrearen kokapen-puntuan elkartu zirenak.

Goi tentsioko linearen inpaktuak esparru askotan kaltetuko lituzke herriak. Paisaiari eta ingurumenari eragingo lizkiokeen kalteak begi bistakoak dira: Natura 2000 Sareko eremu babestuen artetik pasatzen da linea, hala nola, Urbasa-Andia, Aralar, Aizkorri eta Oriagoienako eremuen arteko korridore ekologikoetatik. Hango animaliei eta batez ere hegazti babestuei –ugatza eta arrano beltza, besteak beste– zuzenean eraginen lieke, Friasek ironiaz dioen bezala “hegaztiak ez baitira oso ongi moldatzen tentsio maila horretako hemezortzi kablerekin”. Landarediari ere kalteak ekarriko lizkioke, haritz, pago eta arteak moztuko lirateke eta.

Ingurumenean ez ezik, herri horien eta bertako biztanleen bizitzan ere eragin zuzena izango luke linea eraikitzeak. Osasuna dago alde batetik. Horrelako linea baten azpian lanpara fluoreszente bat bere kasa pizten dela ikus daiteke plataformaren bideo batean. Zein eragin izan ditzake maila horretako eremu elektromagnetikoak osasunean? Horrekin kezkatuta daude herritar asko, eta beren jatorrizko herriak uzteaz pentsatzen ari dira batzuk.

Europar Batasuneko zuhurtzia-printzipioak dio 100 voltetik metro bateko segurtasun tartea behar dutela. Kasu

honetan, kilometro erdiko tartea behar litzateke linearen alde bakoitzean, kilometro bat osotara. Tarte horren barruan geldituko lirateke hamasei herri. Ez dira, beraz, ezarritako minimoak ere errespetatu. Eta herri-guneetatik haratago, beste toki asko ez dituzte kontuan hartu ere egin: baserri auzoak, kanpinak, jendea bizi den poligono industriallak, futbol zelaiak...

Horrez gain, Mutiloako alkate Iñaki Ugaldek azaldu du proiektuak herrietako planteamendurekin aurrez aurre talka egiten duela lurralde antolaketari dagokionez. Mutiloan, Goierriko

» **Europar Batasuneko zuhurtzia-printzipioaren arabera kilometro erdiko segurtasun tartea behar da linearen alde bakoitzean; tarte horren barruan hamasei herri daude**

beste hainbat herritan bezala, kultur ondareari balioa eman eta hango meatzeharrek erreperatzen ari dira, herriaren etorkizuna eta turismoa go-goan. Berdin gertatzen da Garesen Donejakue bidearekin, edota Deikaztelun, ardo ekologikoa ekoizten duten upategiekin. Linea bateraezina da jarduera horiekin guztiekin.

Eta hori guztia, zertarako?

Autopista Elektrikorik Ez plataformako kideek hasieratik salatu zuten goi tentsioko linea horren helburua ez dela tokiko energia beharrianak asetzea. Egon litezkeen energia desorekei aurre egiteko, lehenagotik eraikita dauden lineak indartzea nahikoa litzatekeela diote.

“Penintsulako energia sisteman potentzia handiegia dago instalatuta: 100.000 megawatt, eta eskaera gorenaz da inoiz 44.000 megawattetik pasatu. Hori, krisia baino lehen”, azaldu du Friasek. Zer esan nahi du horrek? Behar dena baino energia gehiago sortzeko ahalmena dagoela –instalaturako potentziak bikoiztu egiten du eskaeraren gailurra–, eta elektrizitatea ezin denez gorde, kanpora atera behar dela. Adibide garbiak dira Castejóngo zentral termikoak: haien eraikuntzan eta man-

tenuan dirutza utzi ondoren geldirik daude, "sistemak behar ez dituelako".

REEn datuen arabera, azken urteetan energia esportazioak gehiago izan dira inportazioak baino. Eta 2015-2020 Energia Plangintzan argi azaltzen da Frantziako Estatura energia garraiatzeko erabiliko dela goi tentsioko linea berria.

Herritarrak eta tokiko administrazioak vs. gobernuak

Lizarraldeko energia hornikuntza izan zen Nafarroako aurreko gobernuak proiektua sutsuki babesteko urte askoan erabilitako arrazoia. Deikazteluko azpiestazioa proiektutik desagertzearekin batera, berriz, aitzakia hori bertan behera gelditu da. "2015-2020 Energia Plangintzak jaso du orain arte EAEko eta batez ere Nafarroako Gobernuak ukatu diguna: goi tentsioko linea, tokiko beharretarako baino, elektrizitatea Frantziara eramateko dela", dio Friasek.

Nafarroako Gobernu berriari ere egitasmoa atzera botatzeko eskaria behin baino gehiagotan egin dio plataformak, baina oraindik ez dutela erantzunik jaso salatu du Friasek: "Lotsagarria da alda-ketaren Gobernuak 'Ez daki/Ez du erantzuten' jarrera hartzea kontu honekin".

Goi tentsioko linearen eskumena estatutuarena izanik ere, elektrizitate planifikazioa egiterakoan proiektuak tokiko gobernuarekin kontsultatzea eta komunikatzea derrigorrezkoa da. Eusko Jaur-laritzak eta Nafarroako Gobernuak ez dute onartu kontsulta hori egin dute-entz, ezta kaltetutako udalen izenean galdetu zaienean ere. "Ez dituzte beren eginbeharrak bete: ez diete Udalei laguntza teknikorik eman, ezta epeen inguruko jakinarazpenik egin. Plataforma egon behar izan da informazio publikoaren hutsuneak betetzen".

EAEko eta Nafarroako gobernuen isiltasunaren eta immo bilismoaren aurrean, ordea, linea pasatzen den herrietan oposizio mugimendu zabala sortu zen proiektua atera bezain laster. Autopista Elektrikorik Ez plataforman bildu dira udalak, herritarrak eta elkarteak, eta proiektua gelditzeko lanean aritu dira azken urteetan.

2011ko abenduan, 470 udal karguk proiektua gelditzeko eskaera egin zieten gobernu foralari eta autonomikoari Berriozarren. Aurrez 220 udal eta kontzejuk onartuak zituzten eskari hori egin zuten mozioak.

Alderdi politiko askotako ordezkariak daude herriotan, baina bitxi bada ere, gai honetan adostasun osoa lortu dute guzti-guztiek: inor ez dago linearen alde. Udaletan legealdi berria hasi zenetik, korporazio berriak mozioak aurkezten ari dira aurreko udal-gobernuen jarrera berresteko.

Baina proiektuak aurrera jarraitzen du, eta 2015-2020 Energia Plangintzaren onarpenarekin pauso garrantzitsua eman dutela azaldu digu Friasek: "Gelditzen zaien gauza bakarra ingurumen-inkaktuaren deklarazioa onartu eta publiko egitea da. Tramite administratibo simple bat, alegia".

"Ez, ez, ez, goi tentsiorik ez"

400 kV-eko linearen proiektua atera zenetik mota askotako ekintzak eta jarduerak antolatu dituzte herrietan. Bartzuk plataformak deituta, bateratuak, eta beste zenbait berriz, tokian tokioak: manifestazioak, mendi martxak, hitzaldiak, parlamentuetan agerraldiak, itzalaldiak, prentsurrekoak... Tentsiorik ez da falta izan goi tentsioko linearen aurka.

Aipatzekoa da, adibidez, 2012ko Altsasuko Deklarazioa: osasungintzako, kulturako, hezkuntzako eta kirol munduko 417 pertsonak agiria sinatu zuten "herrien etorkizuna bermatzeko eta herrietan duintasunez bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko".

2013ko ekainean, berriz, herri kontsultak egin zituzten goi tentsioko lineak kaltetutako 40 herritan. Berriz ere, herritarren erantzuna argia izan zen: erroldatutako biztanleen %63k hartu zuten parte kontsultetan, eta %99k proiektuaren aurka bozkatu zuten.

Esanguratsua da, baita ere, Euskal Herrian alegazio gehien jaso dituen proiektua izan dela Deikaztelu-Itsasoko goi tentsioko linea. Nafarroan eta Gipuzkoan 14.000 alegazio aurkeztu zituzten herritarrek, udalek, kontzejuek eta esparru askotako elkarteek, bakoitzak bere alorretik egindako ekarpenarekin. Gaur egun oraindik, erantzunik jaso gabe jarraitzen dute guztiak.

Aniztasuna autobide elektrikoaren aurkako mugimenduaren bereizgarrietako bat izan da hasieratik. 2014an antolatutako "Lurkide Egunak" oso ongi islatu zuen borrokaren nolakotasuna. Egun hartan, goi tentsioko lineak hartuko litzuzkeen 129 kilometroak bete zi-



tuzten giza kate erraldoiarekin, herrietako elkarte eta talde askotako kideak dorreak egongo lirerateke 247 gunee-tan kokatuta. Tartean guraso elkarteak, gazte asanbladak, koruak, futbol taldeak, ehiztariak, kultur taldeak, mendi taldeak eta beste hamaika eragile ikus zitezkeen.

Hori bera da Iñaki Ugalde Mutiloako alkateak azpimarratu nahi izan duena: herritarren arteko batasuna batetik, eta herrien artean sortutako harremanak bestetik. "Bailarako herrien arteko dinamika polita egon da, elkar ezagutu dugu. Baita Nafarroako herri asko ere. Horixe da borroka honek eman diguna".

Konpainia elektriko handiak garaile

Goi tentsioko lineak eredu bati men egiten diola argi du Friasek: "Energiaren eta kapitalaren kontsumo intentsiboan oinarritutako herrialdean bizi gara. Iberdrola dorrea eta BBVA dorrea: Euskal Herriko zerua 'penetratzen' duten bi falo horien eredu da nagusi".

Eta goi tentsioko linearekin nortzuk izango dira irabazle? Red Eléctrica de España -pribatizatutako erakundea-

» **ALBERTO FRIAS, AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ:**
"2015-2020 Energia Plangintzak jaso du orain arte EAEko eta Nafarroako gobernuak ukatu digutena: linea, tokiko beharretarako baino, ekektrizitatea Frantziara eramateko da"

» Jatorrizko energiaren herena garraioan galtzen da, eta goi tentsio lineak erabiliz produkzioa zentralizatzen da; galerak gutxitzeko kontrakoa egin beharko litzateke

eta konpainia elektriko handiak, batez ere Iberdrola, eremua kontrolatzen duelako. Konpainia horien inguruan dauden "ate birakariak" salatu zituen Autopista Elektrikorik Ez plataformak aurtengo otsailean, Iruñean.

Alternatibez galdetuta, energia efizientziaren ideia aterata da segituan. Gaur egun, jatorrizko energiaren herena garraioan galtzen da. Sistema erabat ez-eraginkorra dugu, eta goi tentsio lineak hauekin produkzio puntuen zentralizazioa bultzatzen da, galerak gutxitzeko bidea hain justu kontrakoa litzatekeenean: energiaren ekoizpen puntua ahalik eta gehien hurbiltzea kontsumo puntura. Horrekin batera, bistan da energia aurrezte ere funtsezkoa dela.

Azkenik, energia alternatiboak aipatu ditu Friasek: "Energia alternatiboak eta berriztagarriak ez dira gauza bera. Berriztagarria izatea ez da ona bere horretan: Nafarroako energia eolikoak ez ditu, adibidez, Castejóngo termikoak ordezkatu, gehigarri modura erabili dute". Energia berriztagarriak bai, baina alternatiboak. ■

Kalean da urtarrileko



aizu!

- Euskalduntzearen eskarmentu luzea
- Seaskaren egutegia ezagutzen
- Xanta Sousa arin-arin
- Zegama-Aizkorri mendi maratoia
- Auzoko: auzokideak eta auzotarrak euskaraz

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizu.eus

HAIN URRUN, HAIN HURBIL

70EKO
HAMARKADAKO
ARGAZKI-
DOKUMEN-
TALISMOA

ERAKUSKETA

2015-10-24 //
2016-01-06

**SAN TELMO
MUSEOA**



Cristina García Rodero, La Confesión, Saavedra, 1980 © Cristina García Rodero / Magnum Photos / Contacto

ANTOLAKEREA / ORGANIZAZIOA

STM
San Telmo Museoa



Donostia Udaia
Ayuntamiento de San Sebastián

donostiakultura.com



Donostia / San Sebastián 2016
European Capital of Culture
Capital Europea de la Cultura

ERAKUNTZE BARRUTIA / GOBERNO BILKORAKO ERAKUNTZAK



Euzko Legebiltzaria
GOBIERNO VASCO
Basque Government



Gipuzkoako Foru Alderdiak

PATROKIO ERREKATUAK / PATRONOS REKATIBOAK



ELDIARIOVASCO



ERAKUNTZE BARRUTIA / ORGANIZAZIOA
LA FABRICA

ERAKUNTZE BARRUTIA / ORGANIZAZIOA
COLECTANIA

ERAKUNTZE BARRUTIA / ORGANIZAZIOA
PROMOCIONES DE ARTE

ERAKUNTZE BARRUTIA / ORGANIZAZIOA
SEIZ

berria

GARA

naiz

ERAKUNTZE BARRUTIA / ORGANIZAZIOA

HAZIEN PRIBATIZAZIOA

GAURKO NEGOZIOA, BIHARKO ESKASIA

Ekialde Hurbilean nekazaritza sortu zenetik, laborariak, haziak landatzeaz gain, gorde eta trukatu egin dituzte. Kontrol horrek espezieen heterogeneotasuna eta elikadura subiranotasuna mantentzea ahalbidetu du. Baina XX. mendean nekazaritza industrialak kolokan jarri du milaka urteko prozesua. Haziak enpresa gutxi batzuen esku geratu dira, eta horiek helburu ekonomikoak paratu dituzte beste guztiaren gainetik. Hazi gutxi dago orain, gutxi batzuen esku.



Asier Arrate Irukieta

@AsierArrate

XX. mendeko nekazaritzaren modernizazio prozesuak, Iraultza Berdeak, hainbat aldaketa ekarri zuen: industria neurriko nekazaritza ekoizpena, teknologia berriak, ikerketa genetikoa... Sustrai ekonomiko eta teknikoak ditu, eta jatorria XVIII. mendean badu ere –lehen hazien enpresa, Vilmorin frantsesa, 1743an sortu zen–, benetako haustura XX. mendearen erdialdean gertatu zen. Bigarren Mundu Gerrako garraio-industria traktore eta makineriara pasatu zen, eta arma kimikoena abonu eta herbizidetara. XX. mendera arte hazien enpresak familia enpresa txikiak ziren. 80ko hamarkadan sortu ziren gaur egun munduko nekazaritza kontrolatzen duten transnazionalak.

Transnazional horiek industria kimikotik datoz, eta hazi enpresa txikiak bereganatu dituzte, azken urteotan ongarririk kimikoen ekoizpen eta salmentari hazien gehituz. Horrela “pakete teknologiko” osoa kontrolatzen dute: haziak, teknolo-

gia, makinaria eta produktu kimikoak.

Enpresa handiek bi bide dituzte urtero euren hazien salmenta ziurtatzeko: erregistroak eta patenteak Europan, eta transgenikoak Hegoalde globaleko herrialdeetan. Marc Badal Nafarroako Hazien Sareko kideak argi utzi duenez: “Hazia produktua eta produzitzeko bidea da aldi berean, eta hori arazoa da industriarentzat”.

Transgenikoen kasuan erraza da salmenta ziurtatzea ingeniaritza genetikoren produktuak direlako, eta beraz, patentea dutelako. Ondorioz, nekazariak ezin dituzte haziak gorde hurrengo urtean berri landatzeko. Europan, oster, transgenikoak historikoki gaizki ikusita egon dira, eta araudi ugari daude haien merkaturatzea debekatzeko –oraingoz Monsanto-ren MON810 artoa da komertzialki ekotzi ahal den bakarra–. Beraz, nekazariak urtero haziak erosteko bidea hazi arrunten patenteak eta erregistroak dira.



Patenteen legedia eta hazien erregistroa

Europako legedi bat ezartzeko saiakerak porrot egin ostean, gaur egun hazien in-guruko araudia estatuen menpe dago. Hazi bat merkaturatu ahal izateko erregistratuta egon behar da. Erregistroan egoteko, baina, hazi aldaerak egonkorra, homogeneoa eta beste hazien desberdina izan behar du. Ezaugarri horiek direla eta, erregistroek ez dute tokiko aldaerarik onartzen. Bai, ordea, agroindustriaren hazi homogeneoak. Industria-ekoizpena duten nekazari profesionalak hazi erregistratuak erabili behar dituzte euren produktuak merkaturatu nahi badituzte.

Aldaera lokalak, beraz, ekoizpen txikietara mugatzen dira, baina nekazari “txikiak” ere askotan hazi erregistratuak hobesten dituzte bi arrazoi-rengatik. Erregistratutako aldaerak, sor-markekin gertatzen den bezala, merkaturatzeko errazagoak dira, eta



askotan nekazariak ez dituzte aldaera lokalak ezagutzen. Eta ez erabiltzearen poderioz, galduz joaten dira.

María Carrascosa Andaluziako Hazien Sareko kideak kritikatu du erregistroek homogeneotasuna bultzatzen dutela, eta hazien truke eta salmenta defendatzeko politikarik ez dagoela: “Espainiako Estatuan 30/6 hazien eta mintegiko landareen legea dago, nekazariari euren haziak trukatzeko eta landatzen lagundu diezaikeena, baina lege hori garatu gabe dago oraindik, eta gaur egungo araudiek ez dituzte tokiko aldaerak bultzatzen”.

Politika horren atzean agroindustriaren presio ahalmena dagoela argi du Carrascosak: “Nekazarien burujabetza ez da errentagarria sektoreko enpresa handientzat. Menpeko nekazaritza ereduak behar dituzte, eta gobernuek, euren politika publikoen bitartez, elikadura burujabetzatik urrun dauden ereduak bultzatzen dituzte”.

Transgenikoen gorakada Hegoalde globalean

Europar nekazaritza ereduaren trantsizioa mendetako kontua izan bada, Hegoaldean aldaketa “azkarra eta bortitza” izaten ari da Marc Badalen esanetan, Hego Amerikan batez ere. Fruta eta barazki aldaera ugari zeuden eremuetan soja eta arto ekoizpen erraldoiak aurki daitezke gaur egun. Paraguai da eredu argiena: nekazaritzako lurren %80an soja transgenikoa lantzen dute, eta munduko laugarren ekoizlea da.

Agroindustriak bertako nekazariak “derrigortu” egiten ditu soja landatzera, animalientzako pentsuak ekoizteko helburuz. Berdin gertatzen da artoarekin, palmondoekin eta antzeko monolaboreekin. “Agroindustriak munduari jaten emateko helburua duela aldarrikatzen du, baina benetako helburua Mendebaldearen eskaria asetzeko lehengaiak ekoiztea da”, salatu du Badalek.

Egoera ekonomikoak ere laborariak transgenikoen alde egitea dakar. Badalen esanetan, eredu industrialak eta transgenikoek gastuak murriztea ahalbidetzen diete nekazariari. Adibide bat jarri du: “Belar txarrak kentzeko jendea kontratatu beharrean herbizidei erresistentea den transgeniko bat landatu, eta traktore bakarrarekin tonaka ongarririkimiko bota ahal duzu pare bat orduan”.

Transgenikoen hainbat moldaketa genetiko “bideragarritasun ekonomiko” lortzeko egindako moldaketa genetikoak dira: landare guztiak batera heltzea, soloetan dentsitate handiagoarekin landatu ahal izatea, fruituaz gain beste gain-produktu bat kopuru handiagoan sortzea edo enpresak berak ekoizten dituen ongarririkimikoei erresistente bihurtzea landarea, nekazariari “pakete teknologiko” osoa saltzeko.

Elikadura-segurtasuna kolokan

Bai Hegoaldean transgenikoak sustatzeak, bai Europan hazien erregistroa ezartzeak, ondorio bera dute: hazi aldaera gutxiago izatea eskuragai. FAOren arabera, XX. mendean tokiko aldaeren %75 galdu da.

Horrek oso ondorio larriak izan ditzake aurreikusi ezin daitekeen lehorten, tenperatura aldaketa, izurrite edo beselako gorabeheraren bat gertatuz gero. Landare guztiak erantzun berbera izan-go lukete, eta uzta txarrak bata bestearen atzetik kateatuko balira mundu mailako ekoizpen ia guztia eteteko arriskua legoke. Munduan biodibertsitatea egon badagoela uste du Badalek, baina galera prozesua oso azkarra da transgenikoen zabalkundearen ondorioz.

Horren aurrean, gobernu eta erakunde ugari hainbat proiektu jarri dituzte martxan heterogeneotasuna gordetzeko. Ezagunena Svalbardeko (Norvegia) hazien biltegia da. Artikoan eraiki duten biltegi erraldoian 840.000 espezieetako haziak daude, eta horietako bakoitzeko 500 ale. Badalen esanetan proiektu "interesgarriak" dira heterogeneotasuna mantentzeko, baina heterogeneotasuna sortzeko haziak "erabili" egin behar dira. Bi kontserbazio mota bereizten ditu Badalek, *ex situ* (laborategiak eta biltegiak) eta *in situ* (nekazaritza). "Soloetan kontserbatu behar dira haziak, modu horretan bakarrik hobetu eta moldatuko baitira". Lan hori gaur egun hazien sare herritarrek daramate aurrera.

90eko hamarkadan hasi ziren hazien sareak lanean. Euskal Herrikoa 1996an sortu zen, eta une honetan 200 bazkide inguru ditu. Joseba Iburgurengoitia kideak azaldu duenez, esparru askotan egiten dute lan: "Ezagupenak lortu aldaera horien inguruan, material biologikoa eskuratu, prospekzio eta ikerketak egin, materiala sailkatu eta kontserbatu".

Zabalkuntza eta dibulgazioa ere egiten dituzte: tailerrak eta hitzaldiak sindikatuarekin, nekazariarekin, udalerrarekin... "Entzuleak harritu egiten dira arazoaren berri ematen diegunean, eta egokieraren larritasunaz ohartzen direnean laguntza handia ematen digute". Azken urteetan bultzada handia izan dutela dio, eta igo egin dela bazkide kopurua.

Ez da lan erraza, ordea, tokiko aldaeraren haziak bildu eta gordetzea, prozesua ezberdina baita. Barazki edo fruitua



Oraingoz hazi dibertsitate handia dago munduan, baina galera prozesua oso azkarra da.



Hazi saltokia Luzaideko Mugako azokan, 2014an.

heldzen denean, uztaren parte bat ez da batu behar, haziari denbora eman behar zaiolako jaso aurretik. Nekazari profesional batentzat denbora eta diru kostu izugarria dakar horrek, aipatutako uzta zati hori galdu egiten delako. Gainera, espeziearen kopuru handiak landatu behar dira polinizazioa ziurtatzeko.

Hori dela eta, María Carrascosari zaila iruditzen zaio nekazariarekin tokiko aldaeraren alde egitea: "Ekoizle profesionalak ezin zaie eskatu hainbeste arriskatzea".

Kontsumitzailea kontzientziaraztea omen gako. "Prest egon behar dugu gehiago ordaintzeko produktuen truke, bestela nekazariak, ekologiko edo ez, ez du tokiko aldaeren alde egingo", gaineratu du Badalek. Iburgurengoitia uste du oraindik aukera dagoela egokierari buelta emateko, beti ere hazi sarean proiektuek aurrera egiten badute. Nekazaritza ekologikoarekin egin den bezala, hurrengo pausoa tokiko aldaeren garrantzia ezagutzera ematea da. ■



Ada Colau,

Bartzelonako alkatea:

“EREDU TURISTIKOA
EZTABAIDATZEA,
HIRI EREDUA
EZTABAIDATZEA DA”

Bartzelonako lehendabiziko emakume alkatea da Ada Colau. Karguan bost hilabete igarota eta Barcelona en Comú gutxiengoan gobernatuz –41 etik 11 zinegotzirekin, CiUk baino bakar bat gehiagorekin–, gainontzeko udaleko indarrei akordiorako deia luzatzen die alkateak. Herritarrei “zelatan” egon daitezen eskatzen die. Hauteskundeen aurretik *La Directak* egindako elkarrizketa da honakoa.

Joan Mas | Maties Lorente

ARGAZKIAK: LA DIRECTA



Indarrean dagoen udal mailako marko instituzionalak mugak al ditu Barcelona en Comú-k (BeC) hasiera batean planteatzen zituen eraldaketak aurrera eraman ahal izateko?

Nabaria da Udalgintzak gogoko eta desira ez ditugun mugak dituela. Udal administrazioa da zuzeneko zerbitzu gehienak ematen dituen: jendeak zerbitzu sozialak, etxebizitza, etab. eskatzen ditu. Bestalde –eta ez da kasualitate hutsa–, trantsizio ostean egin zen diseinuak udal burujabetza murrizten du erabat, administrazio guztiekin alderatuta baliabide urriak ematen baitizkio.

Esku artean duzuenaren arabera, zein erreforma planteatzen duzue Udalaren gisako instituzio bat demokratikoagoa bihurtzeko?

Alde batetik, gogoko genukeena baino askozaz ere mugatuago gaude, baina bestalde, aukera handia dago, eta borondate politikoaren arabera da. Noraino iritsiko gara? Erantzuna ez dago gure esku, aitzitik –beste behin ere–, herritarren osotasunari itzuliko diogu

galdera. Gu, oraintxe bertan, gutxiengoan gauden gobernua gara, 41 zinegotzitik hamaika. Egin ahal izango den hori gainontzeko indarrekin itundutakoaren arabera izango da eta zentzu zabalean, hiriaren borondatearen arabera: inplikaturik diren mugimendu sozialen, erakundeen eta aktore ugarien arabera. Gauzak aldatu daitezzen erantzukin partekatua behar-beharrezkoa da.

Zer dela eta egin zenuen Jordi Martí zinegotzi ohia udaletxeko gerente hautatzeko apustua? Uste al duzu bere soldata –97.000 euro urteko– zuon kode etikora egokitu beharko litzatekeela?

Udal gerentearen figura, topatzen hain erreza ez den perfil teknikoa da. Egitura tekniko eta exekutiboaren arduradun nagusia da. 12.000 langile eta 2.500 milioi eurotik gorako aurrekontua ikuskatzen du. Guk hauteskundeak irabaztean, aurrez bururatu ez zitzaigun goi-kargu mordoxka izendatu behar izan genituen. Guk ez genuen sekula aurrez gobernatu, hori gertaera jakina

da. Konfiantza politiko handia dudan jendearengana aholku eske joan nintzen, eta Jordi Martí gomendatu zidaten. Proposamena egin genion eta aurrez udal gerente gisa kobratzen zuen soldata murriztea onartu zuen. Berak sinatzen ditu milioika euroko kostea duten erabakiak. Lehen hilabete hauetan ongi doa; egia esateko, pozik nago. Horren guztiaren harira, zuzendarien gutxiengo eta gehiengo soldaten inguruko hausnarketa kolektiboa egin beharra dugu.

BeCen hauteskunde kanpainako promesetako bat Polizia Administrazioa eta Segurtasuneko Unitatea (UPAS, egun USP dena) desegitea izan zen. Zergatik ez duzue oraindik Udaltzainen baitako istiluen aurkako unitate hori desegin?

Udaletxera iritsi bezain pronto Udaltzaingoari istiluen aurkako funtzioak egiteari utz ziezaion agindu genion. Ordena publikoa ez da udal eskuduntza, Eskuadra Mossoena baizik. Bestelako eztabaida da ordea, Udaltzaingoak izan beharko lukeen eredia.

Saltzaile ibiltarien gaian sortu diren arazoak irtenbiderik ematen al diete polizia operazioek?

Eskubide sozialen ikuspegitik lantalde bat eratu dugu, zuzen-zuzenean kolektiboarekin harremanetan egon dadin eta baita inplikaturik dauden beste aktoreekin ere, epe motz eta luzean irtenbideak bilatu ahal izateko. Bitartean, Udaltzaingoak bere zereginarekin jarraitu behar du, espazio publikoaren kudeaketarekin. Uste dugu, saltzaile ibiltariari eraso egin beharrean, merkantziarekin zer gertatzen den begiratu beharra dagoela eta argitu nork faltsutzen dituen eta nor aberasten den bere salmentarekin. Eragina duten administrazio ezberdinekin ere kolaborazio handiagoa eskatu dugu, arazoaren erroetara jotzeko, eta ahulnak jazarriak izan daitezzen saihesteko, hain zuzen ere, saltzaile ibiltariak.

Ordenantzaren berrikuspena egiteko konpromisoa duzue, baina orain artean, ez da inolako aldaketarik egin. Horren inguruan neurririk hartu al da?

Elkarbizitzaren itun berri baten alde lan egin behar da, hiritartasun ordenantzaren markoa gaintzeko. Gaintutia dago gaur egun, eta zigorrean zentratzen ez den planteamendua egin beharra dago. Iritzi hori ez da gurea soilik, bidegabekeriaren sindikatuek ere antzera pentsatzen dute. Barne mailako zeharkako lantaldea sortu dugu eremu ezberdinetan informazioa jasotzeko. Gerora, gainontzeko udal taldeekin lan egin beharko dugu, auzo-elkarteekin, merkatariekin eta bidegabekeriaren sindikatuarekin elkarbizitzako itun berri bat adosteko.

Eragin latzena duen auzoetan ohe kopurua murrizteko turismo jasangarriaren alde al zaudete? Zein neurri duzue esku artean?

Bartzelona lako hiri handi batean elkarren aurka doazen interesak daude, eta baita presio turistikoagatik izugarritzeko eragina duten auzoak ere. Badira [turismoari] pisua kentzeko gutxiegi egiten ari garela uste dutenak, eta bestalde badira enpresari eta merkataritza sektore zabalak, gehiegi egiten ari garela irizten dutenak. Beti ados egon izan gara presio turistikoak eragin latzena izan duen auzoetako bizilagunekin. Kanpainan zehar, alokairu turistikoetako lizentzia berrien gabetzea aplikatzera konprometitu ginen, gutako asko turismoak eragindako



“Egun, turismo eredua hiri ereduarentzat mehatxua da, ez baita jasangarria”

“Uste dugu, saltzaile ibiltariari eraso egin beharrean, merkantziarekin zer gertatzen den begiratu beharra dagoela eta argitu nork faltsutzen dituen”

auzoetatik gatoz eta oso ondo ezagutzen ditugu arazoak, gentrifikazio prozesuak eta horrek dakarren higiezinaren espekulazioa. Turismoaren arloan ere ez da lidergo politikorik egon: aurreko gober-

nuak sektoreko enpresek garapen kaotikoa izan zezaten permititu zuen.

Horren aurrean, gure lehentasuna sektore turistikoa gobernatzea da, orain artean inolako kontrol demokratikorik ez zuena. Lehendabizi, alokairu turistikoetako lizentzia berriak gabetu genituen tenporalki. Turismo Udal Kontseilua ere sortu genuen, herritarren arteko eztabaidarako espazio demokratikoa. Abenduan, bere arautegia onartuko da osoko bilkuran. Helburua egungo egoeraren erradiografia egitea da: elementu aunitz falta dira, Bartzelona hazi litekeen edota turismo arloan deshazi beharko lukeen erabakitzeko. Afera hauek demokratikoki planteatu behar dira, guztiak entzunez eta denei ahotsa emanez. Interes partikularrak eta negoziok egotea normala da, baina ezer baino lehen, espazio publikorako, etxebizitzarako edota deskantsurako eskubidea gisako interes orokorrak daude.

Eredu turistikoa eztabaidatzea, hiri eredua eztabaidatzea da. Egun, turismo eredua hiri ereduarentzat mehatxua da, ez baita jasangarria. Burbuila turistikoaren indizioak daude eta ekintza turistikoaren hiritar guztien mesederako izan dadin antolatuta beharra dago.

Pasa den irailaren 22an Udalak Bartzelona Aterperako Hiri izateko neurria onartu zuen, eta 2015. urtean 10,5 milioi euro zegozkien errefuxiatuen krisiari aurre egiteko. Aurtengo aurrekontua ahituko al duzue?

Bartzelonak harrera hiri izan nahi du. Uste dugu errefuxiatuen krisiari aurre egitea edozein administrazio publikoarentzat betebehar moral eta politikoa dela. Etorkinen, emigranteen eta Errefuxiatuen Arretarako Zerbitzuaren bitartez (SAIER) Udalak dagoeneko harrerarako politika oso aurreratua du, afera sozialetarako zerbitzu tekniko oso onekin. Pertsona errefuxiatuen etorrerara aurreratuz, harrerarako plan batean lan egin dugu zerbitzuak hobetzeko eta egoera larriak sufritzen dituzten pertsonen arreta emateko. Gainera, Bartzelonan badira Ukraina, Siria, Irak edota Eritreako jatorria duten eta asiloa eskatu duten pertsonak, baina Estatuak ez ditu aitortzen. Nahiz eta errefuxiatuen estatus juridikorik ez izan, jende horri udal zerbitzu guztiak eskaintzen ari gara. ■

EMANTZIPAZIOA OKUPAZIOAZ HARAGO



Lander Arretxea Bereziartua
@larretxea



Iruñeko Txantreako emantzipazio bulegoan, banku eta erakundeen eraikinak okupatzeko aholkularitza eskaintzeaz gain, etxebizitza hutsa duen auzotarrarekin adostasuna bilatzen dute zerbitzu-truke bidez.



TXANTREAKO EMANTZIPAZIO BULEGOA

- **Helburua:** Etxebizitza eskubidea.
- **Kokapena:** Txantreako Auzotegi Kultur Etxean (Iruñea).
- **Ordutegia:** Astelehenetan 18:30etik 19:30era.
- **Lan-ildoak:** Okupazioa eta alokairu prekarioak.

35.466 etxebizitza huts Nafarroan, haietako 13.199 Iruñerrian. 2013koak dira datuak, baina ez dirudi hori asko aldatu dela pentsatzeko motiborik badagoenik. Eta bitartean, milaka lagun etxebizitza bat izateko aukerarik gabe: gurasoen etxea utzi ezin duten gazteak batzuk, eta are egoera gordinagoan dauden beste batzuk; ordaindu ezin dutelako euren etxeetatik kaleratu dituztenak. Ez dira kontu berriak. Nafarroan ez ezik, Euskal Herri osoan errepikatzen den paradoxa da: etxerik gabeko jendea, eta jenderik gabeko etxeak. Iruñeko Txantrea auzoan ordea, inoren zain egon gabe arazoari heltzeko tresna berria garatu dute, kolektiboa, eta etxebizitza lortzeko bide bat baino gehiago biltzen dituena: Txantreako Emantzipazio Bulegoa.

Auzoko gazteen artean egindako topaketa batean identifikatu zuten horren beharra, gazteen %73k independizatu nahi bai, baina horretarako aukerarik ez zuela adierazi baitzuen. Bertan erabaki zuten etxebizitza eskubidea bermatzeko euren kabuz antolatzea beste irtenbiderik ez zutelana. "Administrazioak, eta are gutxiago enpresa pribatuek, ez gaituzte lagunduko eskubide hori garatzen, gure eskubideak murrizten diren heinean hazten baitira haien irabaziak. Gure ustez, etxebizitza eskubidea sendotzeko modurik egokiena arazoari erantzun kolektibo bat ematea da". Geroztik, etxebizitza faltari irtenbidea aurkitu nahi dionak Txantreako Auzotegi Kultur Etxera jo dezake astelehen arratsaldean, emantzipazio bulegoaren aholku eta laguntza jasotzeko.

Okupazioa eta alokairu prekariora

Proposatzen duten irtenbideetako bat, okupazioa da, eta horretarako aholkularitza teknikoa eta juridikoa eskaintzen dute. Etxebizitzarena eskubidea den neurrian, batez ere bankuenak eta instituzioenak diren etxe hutsak okupatzea zilegi dela aldarrikatzen dute. Gero eta gehiago dira bide hori hautatu dutenak, eta auzotarren babesa ere badute, kaleak betetzen dituzten bandera arrosek erakusten duten moduan. Okupen asanblada bat ere badago jada egoera horretan daudenek bide hori hartu nahi dutenei lagun diezaieten.

Beste alternatiba bat ere lantzen dute, adostasunetik abiatzen dena. Bigarren etxebizitza huts bat duten auzotarrarekin negoziatzen dute, zerbitzuren baten truke, etxebizitza hori behar duenari utz diezaieten: etxea berritzea, seme-alabei klase partikularrak ematea...

Helduena ere baden arazoa

Txantreako Emantzipazio Bulegoa gazte mugimenduaren tresna da, baina oso ongi dakite etxebizitza duinaren falta ez dela soilik gazteen arazoa. Horrenbestez, gazte zein helduentzako bitartekoak eskaintzeko ahalegina egiten dute, eta horrez gain, harreman estua dute arazo beraren kontra borrokatzen ari den auzoko beste eragile batekin: Txantrea Zona Libre de Desahucios kolektiboarekin. "Finantza erakundeei eta etxegabeteak baimentzen dituzten instituzioei presio egin eta babes soziala areagotzeko aritzen gara elkarlanean". ■

AKUILARI APLIKAZIOA

KEINU TXIKIA, GARRANTZI HANDIKO JARRERA

Sakelako telefonoa eta bost minutu nahikoa dira Akuilari aplikazioa erabiltzeko. Jakina, garrantzitsuena norberaren hizkuntza eskubideak urratuak izan direnaren kontzientzia izatea da, eta horrela, gaur euskaraz jaso ezin izan dena bihar hala izateko pausoa eman daiteke. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak estreinatu du aplikazioa joan den azaroan.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Iñigo Calleja bilbotarra nekatu samartuta zegoen. Metroan beti ikusten zuen ‘Sopelana’ idatzita, eta urteak dira Euskaltzaindiak ‘Sopela’ herri izena onartua duela. Lagun sopelazarrak beti gauza bera esaten omen zion. Bada, kexa jarri zuen Behatokiaren webgunean, eta Metro Bilbaok konpondu du gaia. Callejak, orain, Akuilari aplikazioaren bidez txalotu du haien jarrera.

Bigarren kexa ere jarri du, berak kritika eraikitzailea egin duela dio. Donostiako Amara Plazan PESA autobus konpainiak daukan bulegoan beti ikusten zuen honako oharra: “Eska ezazu eta zihurtatu zure txartela”. Eskolan bezala zuzendu beharreko akats ortografikoa dela uste du, bestelako garrantzirik eman gabe, baina behar ez duen h-a kentzeko eskatu du; sakelakoarekin di-da batean argazkia atera eta Akuilariaren bidez kexa bideratu.

Galdetu gabe esan digu asko gustatu zaiola bataren eta bestearen kexak eta zoriontzak ikusteko dagoen aukera, “komunitatea sortzeko balio du eta jakin-mina pizten du, ea beste tokietan nola dabilzan. Adibidez, ohartu naiz Baionan hizkuntza urraketa asko egiten direla, Baionatik kexa asko heltzen dira”.



Akuilua, hizkuntza urraketak salatzen

Horixe baita Behatokiak abian jarritako tresna. Ez da berria, Euskararen Telefonoak –telefonoz deitzeko aukerak edo webgunearen bidez egiteko moldeak– funtzio bera du. Gaur egungo beharretara egokitu da ordea, egunero esku artean dugun sakelakoaren bidez sala daitezke orain hizkuntza urraketak. David Cascan erabiltzaileak dioten moduan, “kexarik ez jartzeko aitzakiarik ez dago orain”.

Garbiñe Petriati Behatokiko zuzendaria adierazi duenez, batzuek salaketa

jartzeko erabiltzeaz gain, beste hainbat kontzientziatzeko balio dezake tresnak, alegia, urraketak hain naturalizatuta dituzten pertsonengana iristeko egitekoa bete dezake, “begira, horrelako zerbait gertatu zitzaidan orain dela bi aste!”. Petriatiren iritziz, jokaera txikia da Akuilari erabiltzea, baina balio handia duen jarrera, “helbururik handiena urrats txiki-ozosuta baitago”.

Azaroaren 24an abiatu bazen ere, Behatokian gustura daude orain arteko ibilbidearekin. 1.100 deskarga egin dira eta antzeman dute kexa-zorion kopuruak gora egin duela.

Asun Ramos: “Hurrengo errenta aitorpena euskaraz jaso nuen”

Asun Ramos Alfaro iruindarra da. Akuilari erabiltzen hasi baino lehen bi kexa egin zituen Behatokiaren Euskararen Telefonoan, duela 4-5 urte. Nafarroako Gobernuko langilea da eta hamaika aldiz esana omen zien errenta aitorpena euskaraz jaso nahi zuela, ez zegoen orde modurik: “Nire kabuz saiatu nintzen eta ez nuen lortu. Telefonoa bazela orduan jakingo nuen eta probatu egin nuen. Hurrengo errenta aitorpena euskaraz jaso nuen”. Orduko hartan jarri zuen bigarren kexaz ez da akordatu ere egiten.

Akuilari bi aldiz erabili du, eta gehiagotan erabiliko duela ziur dago. Euskararen Telefonoarekin alderatuz, azaroaz geroztik bi aldiz erabili du dagoeneko mugikorra kexak jartzeko. Erabilterra-zagoa egin zaion seinale. Beroaldia edo haserrea pasa egiten dela uste du eta azkenean egin gabe utzi. Aplikazioak momentuan egiteko aukera ematen dio.

Iruñeko Udalari jarri dio lehen kexa. Igandez, zerbitzurik ez denean, konturatu gabe herritarrak artatzeko telefonora deitu eta erantzungailua atera zitzaion gaztelania hutsean. Haserretu eta kexa jarri zuen. Bigarrena, hauteskunde kanpainan hainbat alderdik bidalitako idatzientzat izan da. Esan diogu hurrengo hauteskundeen zain egon beharko duela emaitza ikusteko. Barre egin du, baina ondo daki zergatik jarri duen kexa: “Kexatzen naizenean bi gauza dauzkat buruan. Batetik, ondorio bat baldin badago, errenta aitorpenaren adibidean bezala, bikain. Bestetik, hauteskundeen adibidean moduan, segituan ez dut emaitzarik izango, baina Behatokia informazioa biltzen joango da eta gero noizbait eta nonbait izango du isla”.

Ramosen ustez, euskal hiztuna gaizki tratatua denean frustratua sentitzen da eta kexak jartzeak sentimendu horri bide bat eskaintzen dio. “Ideia bikaina izan dute Behatokiokoek”.

David Cascan: “Munduan bakarra ez zarela ikusi ahal duzu”

Bilboko metroa egunero lau aldiz hartzen du barakaldarrak. Ohikoak ez diren oharrak beti entzun izan ditu gaztelaniaz, nahiz eta esan dioten ele bitan ere egiten dituztela. Megafoniako oharra behin eta berriz gaztelania hutsean entzun zuen azken aldian kexa jartzea erabaki zuen. Bere mugikorra zaharregia izaki, lanekoa erabili zuen Akuilari jaitsi eta kexa sartzeko. Metroan bertan ere kexatuko dela dio, bi tokitan adieraztea batean baino hobe dela iritzi baitio.

Momentuan egitea garrantzitsua dela uste du: “Denbora pasatzen bada eta ez baduzu gogoratzen zein egunetan gertatu zen, zein ordutan... arazoak izan ditzakezu kexa jartzean”. Berari gertatu zitzaiolako dio. Udaltzaingoan hainbat egunera jarri zuen kexa eta erantzun zioten ezin zutela ezer esan, ez zuelako zehatz-mehatz adierazi zein ordutan gertatu zen. Udaltzainen txanda bat izan daiteke goizeko ordubiak artekoa eta ordu horretatik aurrera beste txanda bat. Metroan gertakari horrekin akordatu zen eta horregatik jarri zuen kexa momentuan. Udaltzaingoan gertatutakoa kontatu digu: “Noizbait deitu izan dut eta ematen du Kongon gaudela, ez dizute ulertzen... Behin telefonoz bestaldekoa euskalduna izatea eskatu nuen eta nitaz trufatzen hasi ziren. Batak besteari nola esaten zion entzuten nuen, ‘euskaraz egin nahi duela dio!’. Orduan esan nuen: ‘Nahikoa da, kexa jarriko dut!’. Udalean, Behatokian eta Elebiden jarri nuen. Erantzuna: saiaturiko zirela, baina ez zegoela euskaldunik. Oraingo Udalak zehaztapen handiagorekin erantzun dio, baina oraingo aldaketarik ez. “Agian, beste kexa bat jarri beharko dut hemendik urte batzuetara”, dio barrez.

Akuilaritik gehien gustatu zaiona Euskal Herrian jendea zein kexa edo zoriontze mezu jartzen ari den ikusteko aukera da, “munduan bakarra ez zarela ikusi ahal duzu, eta indarra ematen dizu”. ■

» IÑIGO CALLEJA:

“Komunitatea sortzeko balio du eta jakin-mina pizten du, ea beste tokietan nola dabilzan. Adibidez, ohartu naiz Baionan hizkuntza urraketa asko egiten direla”

» ASUN RAMOS:

“Euskal hiztuna gaizki tratatua denean frustratua sentitzen da eta kexak jartzeak sentimendu horri bide bat eskaintzen dio”

» DAVID CASCAN:

“Denbora pasatzen bada eta ez baduzu gogoratzen zein egunetan gertatu zen, zein ordutan... arazoak izan ditzakezu kexa jartzean”

BABESLEA: **HONDARRIBIKO UDALA**



Hondarribia
euskaraz bizi



Hondarribiko Udala



Gozoak eta gorriak



Jakoba Errekondo

Uda eta negua omen ditugu urteko sasoi bakarrak. Berritzen denetik azkenera iristen den arteko uda luzea, eta negua. Garai batean, agian, sasoiak lau izan behar zutela esango zuen norbaitek –ilargiarekin gertatutakoaren antzeratsu?– eta uda-negua zena udaberri-uda-udazken-negu bihurtuko zen. Txakurra nagusiari estekatzen den bezala, adimena hizkuntzaren erraztasunari kateatzea hariketa polita da. Neronek ere gustuko dut. Sasoiak gai honekin, ordea, nire iritzia ez da hain arina.

Gure garaira egokitzeko hariketa egin behar, agian... Luzerako emango lukeen gaia da, baina, nire ustez, gaur egun bi aro ditugu: gozoa eta gorria. Udaberri gozoa, uda gorria, udazken gozoa, negu gorria... Hau da, gozo-gorri-gozo-gorri-gozo-gorri... bizi ditugu.



Lehen uda izango zen gorria eta negua beltza. Gorriak ikusteko udan eta beltzak neguan. Egun, beltza gorriara moteldua dugu.

Gozoetan, gozo hezea eta gozo lehorra ditugu. Gozokietan bezala, alegia: bizkotxo lehorrak eta mozkortuak edo bustiak. Gozo hezea da udaberria, lehorra, berriz, udazkena. Alde horretatik tropikala da geure ingurune atlantikoa; sasoi lehorra eta euriteen sasoiak besterik ez dituzte tropikoetan.

Eta zer datorkigu? Behin eta berriz zirri eginagatik etxekoa ez denaren tratu ematen diogun klima aldaketa dela medio, zer datorkigu? Hipotesiak zientzialarientzat utzita, hona nire bi uste: Karibeko Golkoko itsaslasterra moteltzearen eraginez negua erabat belztuko da, edo uda belztuko da. Bietako edozeinetan, sasoi-tegi berria proposatzen dut: egungo gozo lehorrari neguberria, negua, neguazkena gozo hezeari eta uda. ■



Haltza

Erreka, ibai edo errio, bazterrean hazi da haltza, *Alnus glutinosa*. Erriberan uraren emanak ekarritako mausar, legar, hondar, errekarri eta harribili izan ditu sustraletan lagun. Jaio eta errotu zen, zainak haien artean sigi-sagan hazten ziren artean. Luza eta luza, lur harroan zuhaitzari eusteko. Uholde bakoitzean balantzaka ibiliz lurrari eusteko grina luzatuz... Azkenekoa iritsi zen arte. Hark bere onetik, bere lurretik atera zuen arte. Eta urak sustraia txikitu, eta eraman. Itsasoari hondarretan eman arte. Horra haltzarena zena, sigi-sagan hondarretan, gorri. Haltza beti gorri.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [t @bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

EGUBERRITARAKO OPARIA

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

ARGIA n lurrak lantzeko lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta 2016ko Ilargiaren Egutegia. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugu egutegia Pello Zabalak aukeratutako esae-rekin. Hilerok lan nagusiak, ilargiaren kokapena eta egutegi biodinamikoaren araberrako eguneroko joerak azaltzen ditu.



AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauk dira ondorengo hitzorduek:

Urtarrilak 15

Ataun (Aia)

Haitzarri elkarteetan, 19:00etan.

Urtarrilak 20

Bilbo

Kafe Antzokian, 10:30ean eta 19:00etan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu

sustapena@argia.com

📞 943 371 545

NOIZKO EUSKALDUN GUZTIAK ERRETIRATUKO GAITUEN ONDDO BELTZ HIDROPONIKOA?



KOMIKILARIAK ERREKONDORREN KONTSULTAN

Onddoak beste edozein jaki bezala basaka edo makatza bada hobe. Barazkiak, animaliak, arrainak... dena etxekotu eta itxituretan, karioletan, hidroponikoan... azken beltzean kartzelatan hazten ditugu. Gero ahasabaian zer gustu utziko digute ba? Honela elikatzen ditugu gure gorputza eta arima.

Makatza den edozer, baita onddoak ere, etxekotuko bagenitu, ez lirakeke, inolaz ere, berdina izango. Ezin da berak hazten diren ekosistema osotasunean kopiatu, eta gutxiago hidroponikoan. Nik ez nuke horrelakorik jango. Eta merkezurrekoak izango lirakekeen, jangai exkax bat bezala ikusiko genuke, orain txanpinoiekin edo barregorriekin gertatzen den bezala.

Mendira joan, onddo edo perretxiko basatiak bildu, sukaldean prestatu eta jatea bezalako plazer gutxi ezagutzen dut mundu honetan. Gaur bertan bildu ditut galanperna eder batzuk, sekula jangabeko lagun batzuek dastatu dituzte eta haien aurpegia ikustekoa zen...

Jakoba Errekondo

NEGUKO SOLSTIZIOKO ZUHAITZA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Judea, K.a. VII. mendea. Jeremias profetak esan zuen “herrien ohiturak banitatea” zirela, egur zati bat “zilarrez eta urrez apaintzen dutelako, iltzez eta mailuz tinkatzen dutelako”, eta “baliorik gabeko objektuak gurtzen dituztelako, benetako Jainkoa gurtu beharrean”. Jeremias “iparraldeko herrien”, hau da, babiloniarren ohitura zaharra kritikatzeko ari zen: zuhaitz bat moztu eta enborra apaintzen zuten, bertan ofrendak uzteko. Beste egur zati bat, gurutzeta, adoratzeko mende batzuk geroago izango zuen arrakasta ez zuen iragarri iragarleak.

Tertulianok (ca. 160–ca. 220), aldiz, erromatarren kultu paganoren aurka egin zuen. Inperioan kaleak apaintzeko ohitura zuten Saturnoren jaietan: atee-tan erramua jartzen zuten eta lumina-riak pizten zituzten neguaren hasieran.

Zeltek haritzak fruituz eta kandelaz dotoretu ohi zituzten neguko solstizioan, eguzkiaren eta landareak itzuliko zirela ziurtatzeko.

Jeremias, Tertuliano eta zuhaitz paganoren aurka zeuden beste kristauen ahaleginak alferrikakoak izan ziren. Eta kristautasunak, ohitura deuseztatu ezin zuenez, bere egin zuen, beste hainbatetan bezala. Kondairaren arabera, VIII. mendean, Alemaniako Hesse eskualdean, Thor jainkoari eskainitako haritz bat zegoen eta neguko solstizioan sakrifizio bat



Elektrizitatez pizten dira egungo Gabonetako zuhaitzak. Garai batean kandelak jarri ohi zituzten –zeltek edo Martin Lutherrek berak, esaterako–, edo zuzenean su ematen zitoten.

eskaintzen zitoten urtero. Bonifazio misiolariak zuhaitza moztu omen zuen eta, ebanjelioa irakurri ondoren, bertakoei izei bat eman zien, betiereko bizitzaren irudi, “hostoak beti berde dituelako eta adaburuak zerua seinatzen duelako”.

Gabonetan pinua etxeetan jartzeko ohitura zabalduz joan zen eremu haie-tan, baina, hasiera batean, sabaian adaburuz behera zintzilikatzen zituzten. Diotenez, Martin Luther (1483-1546) teologoak Gabonetako zuhaitzaren adarretan kandela batzuk jartzea erabaki zuen, ziurrenik zelten usadioaren berri

jakin gabe, “izarrek neguko gauetan bezala dir-dir egiten dutelako”.

1510eko Eguberrietan, Rigako (Letonia) dendari batzuek izei bat jarri zuten azoka-plazan, arrosaz apaindu zuten, inguruan dantzan aritu ziren eta, azkenean, su eman zitoten. Tallinen (Estonia) diote urte batzuk lehenago, 1441ean, antzeko zerbait egin zutela. Eta, hala, Baltikoko bi hiriak lehian ari dira plaza publiko batean Gabonetako zuhaitza lehenengoz nork jarri zuen, ohitura berria balitz bezala, Jeremiasek 2.000 urte lehenago gaia hizpide izan ez balu bezala. ■



GUNNAN MENANDER / LUND UNIVERSITY

Sasoi ederrean... hil eta gero

Argazkikoa Peder Winstrup-en (1605-1679) momia da. Lundeko (Suedia) apezpikuak orotariko gaitzak izan zituela adierazten du gorpuzkiak: gaixotasun kardiobaskularrak, behazun-harriak, Forestier-Rotés-en gaixotasuna, hezueria, txantxarra eta, ziurrenik, tuberkulosia. Kontua da haren gorpua ez zutela baltsamatu, modu naturalean kontserbatu dela hain egoera onean.

Lundeko Unibertsitateko Historia Museoko zuzendari Per Karstenen arabera, bost arrazoik eragin zuten hori: aire lehorrean naturalki momifikatu zela; neguan hil zela; bi urtez ohean egoteak giharren zati handi bat galtzea eragin ziola; gorpuekin ehortzitako landare usaintsuek intsektuetatik babestu zutela; eta kriptako hezetasuna eta tenperatura konstanteak izan direla. ■

MAHAI-JOLAS BERRIA

Perretxiko zaindariai eta lapurrak



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Badakit *Bizi Baratzea* dela ARGIAren aurtengo produktu izarra, eta ez nator horretaz hitz egitera. Baina mesedez, utzidazu jolasa azaltzen eta ez laga alde batera testua. *Perretxiko zaindariai* izena du etxeko txikientzako prestatutako mahai-jolasak. ARGIAk berak TV3rekin elkarlanean katalanez egindako *Caçadors de bolets* jolasa euskaratu du aurren eta hauxe da emaitza.

Udazkenarekin batera hasten dira goizeko ordu txikietan perretxikotara joan ohi direnen lehen mugimenduak, perretxikoak zaintzera, biltzera edo lapurtzera (herri batetik bestera desberdin definituko dira). Nola jakin, ordea, zein diren bildu beharrekoak, zein diren jangarriak eta zein pozoitsuak, eta nolako itxura duten? Euskal Herrian bildu daitezkeen 112 perretxiko-klase daude jolasean, beren irudi eta guzti, eta galderak ondo erantzutearen poderioz joango gara perretxikoak esku-ratu eta fitxak aurrera mugitzen.

Jolasteko hiru modu

Ez dago jolasteko formula bakarra. Hiru modu dauzkagu aukeran. *Boilurraren bila*; *Aniztasuna da gakoa* eta *Bete saskia*. Jolas-modu bakoitzak bere helburuak izango ditu, eta horren arabera antolatuko da estrategia eta ibilbidea; perretxiko bila joateko basoan lau bide izango baititugu aukeran.

Perretxiko biltzean arau batzuk ere badaude, eta mahai-jolasean ere errespetatu beharko dira arazorik izan nahi ez bada. Nork ez du ezagutzen gipuzkoarren eta nafarren arteko liskarra? Jolasean ibilbide bat aukeratu dugu, gure ibilbidea eta lurraldea izango dena, baina bide batetik besterako zubi batzuk ere badaude. Besteen lurretan sartzen bagara, ordea, perretxiko-biltzaile izatetik perretxiko-lapur izatera pasako gara, eta bertakoak han harrapatuz gero, zigorra jasoko dugu. ■

“ARGIA behar dugu, bazterreko ahotsak erdigunera ekartzen dituelako”

Kattalin Miner,
MEDEAK talde feministako kidea

#darpidegu-ren perlak



Bertsotan saiatu eta ez duzu potu besterik egiten? Harpidetu @argia-ra. @ielortza-ri balio izan dio #darpidegu-k @zerdionk



- Imanol, noa hua?!?
- Partidua konponduat, oain @argia-ko harpidetza inbiteit. Banitxek hegan! @boligorria

Egin zuk ere #darpidegu umoretsua sare sozialetan:

- Hartu pertsona edo adierazi nahi duzun gaiaren bi argazki.
- Gehitu azalpen testua eta igo sarera #darpidegu hitza jarrita.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiraletan, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.



Salneurria: 27 € / Harpideentzat: 24 €

Eskuratzeko deitu ARGIAra (943371545) edo sartu Interneteko argia.eus/denda helbidean.

NAFARROAKO JOTAK GALDUTA DAGOEN HEGOALDEKO BERTSOLARITZA

Gaur egun nafar jotak musika eta letra aurretik egin duten kantuak ditugu. Txapelketa, jaialdi eta emanaldietan jota berdinak entzun daitezke maiz, eta saritzen den bakarra interpretatzaileen ahotsa eta kantatzeko modua dira. Ez da, ordea, beti horrela izan. Garai batean jotak bat-batean botatzen ziren, erronda eta tabernetan bereziki, eta hitzak ez ziren inolaz ere gaur egungoak bezain zuzenak. Jose Mari Esparza jota bildumagilearen hitzetan: “Navarriestek jotaren bertsio ofizial bat inposatu dute, eta hegoak ebaki dizkiote. Orain ez dugu ez txori ez deus”.



Julen Leuza Izko

@JulenLeuza

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Motibazio politiko, sozial, erlijioso edo moralen ezarritako orori kontra egin dieten koplak “jota heretiko” izenarekin biribiltzen ditu Jose Mari Esparzak. Bertsoaroa zikloaren baitan eman zuen hitzaldian azaldu zuenez, bere interesaren helburu nagusia inspirazio herrikoia eman duen beste begirada hori erakustea da, hainbat garaitan herriak sortu duen adierazpen bizi eta dinamikoa, alegia. Antzinako jotek bat-batekotasuna eta, modu batean, desegokitasuna defendatzera dator editorea, koplak heretikoen bilduma aparta gainean duela: 1988an idatzi zuen *Jotas heréticas de Navarra* liburua. 2013an hirugarren edizioa argitaratu zuen Al-taffaylla Kultur Taldeak, zuzenduta eta 300 koplak berri gehituta.

Berak dioenez, jota jaialdien inguruan jaso diren lehen berriek mota askotako letrak erakusten dituzte, garaiko errondetako naturaltasun eta bat-batekotasuna agertokian islatzen zenaren seinale. Honek ordea, ez zuen asko iraun, eta jota kantariak azkar kendu zion lekua jotariari. Gerrate zibiletik aurrera es-

tatus politikoa ferekatzen zuen edozer debekatu zen, eta beraz, jota ortodoxoak nagusitu ziren, herritarrek haien inguruko gertakariei buruz ezer paratu ezin zutelarik, eta horrela bat-bateko jotak desagertuz joan ziren.

Jatorri jotaria

Kantua eguneroko ohitura duen familia batetik datorrela azaldu zuen Esparzak: amaren aldetik, gainera, jotarenganako afizio handia zegoela. Senide asko izan zituen jotari, baina bereziki aitona izan zen, Cirilo Zabalegi, etxeko eta eguneroko koplak munduan sartu zuena. Aitonaren irakaspenetatik abiatuta hasi zen koplak biltzeko eta jota heretikoen historia aztertu eta ezagutzeko Esparzaren afizioa. Aitonak kantatzen zuen bezala:

*Nunca es el mejor joterero
el que canta con más fuerza
joterero es aquél que sabe
echar jotas a una berza.*



Jose Mari Esparza urriaren 22an, Bertsoaroaren baitan Iruñean emaniko hitzaldian. Ordubete inguruan eta euskara hutsez Nafarroako hegoaldeko bertsolaritzaren bilakaera, historia eta gainbehera azaldu zituen.



» **JOSE MARI ESPARZA:**
“Navarrismoak jota bahitu du”. Jota Nafarroako identifikazio hegemoniko bihurtu nahi izan dute, lurralde honen folkloreaken (espainiarra, noski) ezaugarri nagusia bezala erakutsiz beti

Nafarroako historia koplak bidez

Navarro Villosladak idatzi zuen nabaria zela Nafarroan edozein gertakariren aurrean koplak edo abestiak inprobisatzeko zegoen ohitura. Jose Mari Iribarren jotaren inguruko XX. mende erdialdeko ikertzaile nabarmenetariko bat izan zen (Azkueren moduan egoerak, ideologiak eta garaiak bultzatuta zekiena baino askoz ere gutxiago idatzi zuena). Iribarrenek esan zuen frantsesadatik aurrera Nafarroako historia guztia koplekin kontatu daitekeela, eta Esparzak berresten du. Hainbat gertakari eta garaitako koplak erakutsi zituen idazleak hitzaldian, hona batzuk:

*Clamaban los liberales
que la reina no paría
y ha parido más muñoces
que liberales había*

*Carlista tengo que ser
aunque me corten el moño
por menos de cinco reales
hay pelucas en Logroño*

*Vivan las cuatro provincias
que siempre han estado unidas
y nunca se apartarán
aunque Gamazo lo diga*

*La libertad ya ha venido
desde el 14 de abril
ya se grita por las calles
¡Fuera la Guardia Civil!*

*Aunque hasta el séptimo cielo
San Pedro le suba a Franco
no ha de llegar a la altura
que llegó Carrero Blanco*

*Muy bien los requetés
muy bien por los falangistas
España grande ha de ser
cuando mueran los marxistas*

Gertakari konkretuez gain, pertsonaia, egoera eta gai ugari izan dira jota heretikoentzat inspirazio iturri, hala nola elizgizonak, Guardia Zibila, epaileak, jurnalariak, pobreak, aberatsak, mozkorrak... edo abertzaletasuna, euskaldunak, erotismoa eta sexua:

*Con los curas y los frailes
las monjas y los beatos
o hay que llevarles al aire
o hay que tener pocos tratos*

NEURRI ETA DOINUAK

Jota bertsoak edo koplak kantatzeko Nafarroako berezko era da. Bere modu orokorrean, zortzi silabako lau bertso-lerrok osatzen dute, bigarren eta laugarren lerroek errimatzen dutelarik, eta beraz, errima egiteko modu erraza lortuz. Melodia ezberdinetan kantatzen dira, eta badira beste motatako melodia batzuetara (hiru edo bost bertso-lerroekin edo zortzi baino silaba gutxiago edo gehiagoko lerroekin) egokitzen diren koplak ere. Hainbat lerro errepikapen egiten dira melodiaren arabera; gauzak honela, ohikoa da 1-2-1-3-4, 1-2-1-3-4-4-2, 1-1-2-3-4-4-1 edo 2-1-2-3-4-4-1 bezalako errima ordenekin jotak kantatzea. Batzuetan, bertso edo kantuekin gertatzen den bezala, ordena berezi batek esanahia alda diezaieke lerroei, emaitza zorrotzak lortuz.

Melodia askoren jatorria ezezaguna bada ere, egun kantatzen diren gehienak ez dira bereziki zaharrak, ez baitutuzte 100 urte baino gehiago. Koplaren aurretik 3/4ko abiadura azkarreko melodia ezagun edo tradizional bat jotzen da, ondoren erritmoa moteldu eta koplari sarrera emateko. Ohikoena jotak gitarra edo akordeoiarekin laguntzea da, baina soka-taldeak (bandurria eta lauteekin) eta haize taldeak (klarinete, tronpeta edo tuba bezalako tresnekin) garaian arabera maiz erabili izan dira.

*Ya vienen los jornaleros
de trabajar del Canal
han trabajau todo el mes
y no les quieren pagar*

*Seis días está un camello
trabajando y sin beber
tu marido se está un año
pero haciéndolo al revés*

*Vizcaya produce hierro
Guipúzcoa sabe hacer armas
y nervios de acero y bronce
sabe fabricar Navarra
Quisiera ser zapatico
para ponerme en tu pie
y que así pudiera verte
lo que no me dejás ver*

*¡Ay madre que me lo han roto!
¡Hija, no digas el qué!
el cantarico en la fuente
madre, ¿qué se pensaba usted?*

Jotak euskaraz

Jotak euskaraz ere kantatu izan dira Nafarroan. Esparzak dioenaren arabera, "bi hizkuntzak musukatzerara iritsi ziren", adibidez, XVIII. mendean Tafallan gaztelaniaz kantatzen ziren koplak batzuk Artaxoan (orduan euskalduna oraindik) euskaraz ematen zirelarik. Artaxoan jakina da koadrila bat epaitua izan zela 1765ean emakume alargun bati euskarazko jota bat kantatzeagatik. Honetaz gain, Nafarroako iparraldean jotaren neurri eta errima bereko koplak asko sortu izan dira, baita Gipuzkoa eta Bizkaitik heldutakoak ere, bereziki Karlis-taden garaian.

XX. mendean jotak euskaraz grabatu zituzten lehenak Larragako Joteroak izan ziren. 1985ean Ataiar errondailarekin batera ateratako diskoa letren eduki ezkertiarrengatik garrantzitsua izan bazen ere, euskarazko jotak sartzea iraultza izan zen jotaren munduan:

Bota Erribera jota
Larragatik Gernikara
mila lore berri gara
espos goaz Iruñera

Iruñea haiz ederrago
amorezko pena baino
goi elurretaraino
hire jota diat botako

Raimundo Lanás ta Etxahun
Xiberu ta Nafarroa
biei kantatzen diegu
Larragako joteroak

Jota horietako batzuek euskal kantari batzuen erreperitorioan daude oraindik. Nabaria da Ipar Euskal Herrian euskarazko jotak kantatzeko egon den tradizioa azken hamarkadetan, malaruski, ia Nafarroa Garaian baino handiagoa; Etxamendi eta Larralde, Amaren Alabak, Kalakan, Xiberotarrak edo Jean Mixel Bedaxagar ditugu horren adibide.

1995ean Tuteran ospatu zen Nafarroa Oinezeko kanta ofizialean eta Kojon Prieto y los Huajolotes taldeak jaiari eskainitako kantuan bi jota hauek entzun daitezke:

NAFAR URRETXINDORRAREN TXAPELA

Raimundo Lanás Muru (1908-1939) Murillo el Fruton jaiotako jotaria zen. Jotak sortu eta biziki ongi kantatu zituen bere bizitza laburrean. Hortik datorkio Nafar Urretxindorra ezizena. Berari buruz iritsi zaigun irudia *navarrico* alaiarena da, Erriberakoa, espainiarra, gaztelaniazko jota kantaria eta Errepublikara garaian erreke-teen txapel gorria janzten zuena. Jose Mari Esparzak baieztatzen du hemen ere manipulazioa galanta izan dela. Lanás errepublikazalea zen, bere herriko familia xume guztiak bezala. Errepublikaren aldeko jotak bota izan zituen, baita frankisten kontrakoak ere. Euskaraz kantatu zuen: ez zen euskalduna, baina ezagutzen zuen euskarazko abestiren bat. Esparzak bere alargunari jasotako testigantzen arabera, Lanásen 1935ean Mexikon *Goizeko Izarra* kantua osorik abestu zuen. Datu hau ez da inoiz aipatu bere biografietan. Gure urretxindorrek jaso duen manipulaziorik handienak ordea bere txapelarekin du zerikusia, txapelaren kolorearekin, alegia. Txapel gorriarekin ageri da beti argazki eta koadroetan, baina bere txapela urdina zen. Hau ere jotariaren alargunak Esparzari kontatutakoa da, alegia, beti kantatu zuela txapel urdinarekin, baina Valeriano Ordoñezek Lanási buruzko biografian nahita aldatu



zuela. Errepublikara garaian Nafarroan ez zen txapel gorriak janzten, eta are gutxiago Madrilan, Lanásen hainbestetan kantatu zuen hirian. 1935ean Darrok egin zion erretratuan argi ikusten da zapi gorria baina txapel urdina zeramala, errepublikazalea eta vasco-navarroa zela ezkutatzeke aldatu ziotena.

» Jotak euskaraz ere kantatu izan dira Nafarroan. XVIII. mendean Tafallan gaztelera kantatzen ziren koplak batzuk Artaxoan euskaraz ematen ziren

» Lanak bat-bateko jota emalea zen, baina honi ahots eta kantatzeko modu paregabea batu zitzaion. Bere diskografiak jotari eredugarritzat ezarri zuen, eta bere oinordekoek ahotsari eman zioten garrantzia eta letren edukia alde batera utzi zuten

Abardenetako hots lehenak Muskaria zaharreko euskera aspaldiko erroa loratuz dijoba lur gaziak antzutu ez duena herri honen gogoia: Erribera Bere hizkuntza galdu ezkerre herria hankamotz dabil Tuteran itxoiten dizut makuluekin behar balitz

Jotaren bilakaera eta gainbehera

Jotak grabatu zituzten lehenak Tafallako Pajeak izan ziren. 1920ko hamarkadan hiru disko atera zituzten, eta diskoetako jotak erronda-jotak ziren, kantarien ahotsa baino, letra, inprobisazioa edo ironia nagusi zirela. Geroago Raimundo Lanás eta bere jarraitzaileek ateratako diskoetatik urrun daude Pajeen koplak, honenak askoz ere libre eta heterodoxoagoak ziren. Honek argi uzten du gaur egun ezagutzen dugun jotak ez dela oso aspaldikoa.

Lanás ere bat-bateko jota emalea zen, baina honi ahots eta kantatzeko modu paregabea batu zitzaion. Gezurra dirudien arren, honen ahots apartak neurri batean jotaren gainbehera ekarri zuen: bere diskografiak jotari eredugarritzat ezarri zuen, eta bere oinordekoek ahotsari eman zioten garrantzia eta letren edukia alde batera utzi zuten. Hala bada, jotak desagertzen hasi ziren, eta jota kantariak nagusitu.

Jotaren bilakaeraren beste arrazoiak ugari dira: Boskoteak eta errondak desagertu ziren (salbuespenak salbuespen, beti ere) eta espazio publikoetan musika grabatua jartzen hasi ziren. Gerran, eta frankismoan gero, zentsura ikaragarria izan zen, eta errepublikaren aldeko koplak asko desagertu ziren. Ondoren etorri ziren lehiaketa eta jaialdiek ez zuten lagundu, saritzen zen gauza bakarra ahotsa baitzen. Baina jotaren gainbeherak errudun bat baldin badu, Esparzak argi du hori orain arteko Nafarroa ofiziala eta

navarrismo atzerakoa izan dela. Tafallararen ustez, “navarrismoak jota bahitu du”. Jaime del Burgo bezalako pertsonaiei esker, jota Nafarroako identifikazio hegemoniko bihurtu nahi izan dute, lurralde honen folkloreak (espainiarra, noski) ezaugarri nagusitzat erakutsiz beti. “Jotaren bertsio ofizial bat inposatu dute, eta hegoak ebaki dizkiote. Orain ez dugu ez txori ez deus.”

Jotak nola berreskuratu?

Hala galdetu zioten Jose Mari Esparzari hitzaldiaren bukaeran. Berak, ordea, ez zuen erantzun zehatzik eman, baina argi utzi zuen aipaturiko navarrismo horrek ez duela eginen. Debatea irekia utzi zuen, baina hauxe adieraziz: “Jota berreskuratu nahi badugu heterodoxoak izan beharko dugu, nahitanahiez.” Bertsoaren adibidea ondoan dugu, baita bertsolariak ere jotaren erudia eta melodia anitz. Bideak asko izan daitezke. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Momentu goren horiek



Igor Estankona



Antologia

INGEBORG BACHMANN

Itzultzailea: Nagore Tolosa
Poemak
Susa, 2016

Nagore Tolosaren eskutik datorren Ingeborg Bachmannen (Klagenfurt, Austria, 1926 – Erroma, 1973) poema antologia honen erakargarritasuna bilaketan dago. Poetak urte gutxiren buruan agortu zuen bere etorri poetikoa, idazten bazekiela baina idazteko beharrik ez zuela susmatzen hasi zenean. Idazteko beharra nondik datorren, poemaren funtzioa zein den, eta are hizkuntzaren beraren zentzu autonomoa zein izan daitekeen, hara Bachmannen –eta garaiko beste batzuen– akulua.

Poema hauek irakur daitezke bere horretan, edo poesiaren zentzuaz hausnarrean: “Tonua aurkitu dute, / are, tonua, / axola ez duen hots-muga, / hots-hesia/ hain dago bakarrik, / hain bakarrik, ezer / ez baitzaio iristen”. Krisi ideologiko eta literarioaren ondorio poetiko ere bada zeozelan Ingeborg Bachmannen obra. Zerbait berria aurkitu beharrean izan zirenen geldotasuna dauka, eta era berean sakonki kilikagarria da. Emakume errebolitariaren hitza aurki daiteke hemen, errebelatu dena hizkuntzaren mugen kontra, ohartu dena hitz bakoitzaren garrantziaz: “Isiltasunaren haria / odolaren uhinean tenkaturik, / bihotz ozenetik heldu nizun”.

Doktore tesia Heideggerren inguruan ondu zuen, baina gehiago dirudi Wittgensteinen jarraitzaile. Garai konkretu baterako hizkuntza hain zuzen hizkuntzaren azterketatik iritsi gura izan zuen belaunaldiko ordezkaria da. Ez alferrik, hitzak agortuxeak ematen zutenen gerraoste mikatza bizitza tokatu zitzaion, Europa bere baitan bildurik eta isilik zegoen tertzioa. Beñat Sarasolak hala definitzen du hitzaurrean testuinguru

hori: “Alemaniako gerraondoko idazle gehienek egoera muturreko bati egin behar izan zioten aurre. Ez soilik materialki herrialde suntsitu bat berreraiki behar izan zutelako, baizik eta kulturalki, nazismoaren ondoren, idazteari esanahi berri bat aurkitu behar izan ziotelako. Guztiek erantzun behar izan zioten alde edo moldez galdera berari: nola idatzi nazismoaren ondoren?”.

Nola irakurri beraz antologia hau, isiltasunaren ideia buruan erabili barik? Hemen literatura da problema. Zelan esan gauzak, alegia. Esatearen ondorio garenez gu ere, hitzek pisu bat hartzen dute normalean ez daukatena: “Giltzalore eta hirusta / sorgin-duen gauean, / bustizkidazu oinak, / arinago ibil nadin”.

Poesia modu honetan irudiak –giltzalore eta hirustak– daude bakarrik denboratik at. Gure baitan dardara egiten dute euren hotsarengatik, euren pisuarengatik... azken batean, gu geu ere hizkuntza garelako eta haren erabilpenaren produktu.

Bachmann aipatzen denean aipatzen dira erreskadan Rilke, Celan. Baina liburu honetan irakurleak ikusiko duenez, askoz erradikalagoa da, klasikoki berria, Bachmannen poesia. ■



» TELEGRAMA

Aurtengo **Maskarada** Sohüta-Hokiko gazteek emanen dute, lehen plazaratzea urtarrilaren 10ean Sohütan; azkena Hokin, apirilaren 10ean **STOP Jose Antonio Azpia-zuren** hitzaldia (Gaia: Euskal emaztearen presentzia Aro Modernoan; XVI.-XVII. mendeetan) Baionako Euskal Museoan, urtarrilaren 14an, arratsaldeko 6etan **STOP Band Jovi** musika taldeak “emanaldi familiarra” kontzertua emanen du Iruñeko Zentral aretoan; urtarrilaren 10ean, arratsaldeko 6etan **STOP Iruñea nola?** elkarteak “Atlantiko beltza: esklabutzako musikak, erresistentziako musikak” hitzaldia eskainiko du urtarrilaren 22an, arratsaldeko 7etan, Iruñeko Katakarak-en **STOP**

» MUSIKA

Delikadezia



Montse Auzmendi

Mozart eta Bruckneren lanak

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Erik Nielsen.
Piano jotzailea: Judith Jauregui.
Lekua: Euskalduna Jauregia.
Data: abenduaren 11.

Judith Jaureguiuk “toke” ederra du, hau da, noraino sakatu behar den tekla bakoitza, ze indar, ze tentsiorekin... hori guztia kontrolatzen du erabat. Horren ondorioz, soinu polita eta biribila ateratzen du pianotik, berak nahi duen soinua. Eta ez hori bakarrik, mila bertute ditu Jaureguiuk pianoaren aurrean. Baina, beharbada, soinuaren edertasunak ito dezake diskurtso musikala. Pianoaren munduan badago soinuaren halako mitifikazio bat. Berez, tekla bakoitza-

ren mailuak soinu lehorra ateratzen du (aldeak badaude piano batetik bestera, noski; ez da gauza bera Bösendorfer bat edo Yamaha bat), eta, gauzak horrela, piano jotzailearen abiltadeara da lehortasun hori nolabait leuntzea, pultsazio eraginkorraren bidez. Hau oso ondo asimilatua du Judith Jaureguiuk. Horren truke, soinuaren etengabeko arreta horrek tentsio musikala makaldu egiten du bartzuetan. Eta hauxe gertatu zen Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin batera eman zuen azken kontzertuan. Mozarten *24. Kontzertu* atsegin eta akatsgabea entzun genuen, baina, puntu bateraino, aspergarria ere bai. Dena polit-polita, fina, ondo egina, baina tentsiorik gabea. Ez ulertu, mesedez, saio txarra izan zela. Bertsio delikatu eta dotorea entzun genuen, zalantzarik gabe. Halere, ez da niri gehien gustatzen zaidan bertsioa. Agian nahiago nuke ukitu maskulinoagoa. Propina gisa, beste gutzia bat, aurrena bezain delikatua: Mompouren *Scènes d'enfants* liburuaren zatitxo bat, argitsua, fina, ñabarduraz betea. Jauregui Euskal Herriko pianista onenetako bat da eta halaxe demostratzen du errezitaldi bakoitzean.

Giroa erabat aldatu zen saioaren bigarren zatian. Bruckneren *3. Sinfonia* re minorrean entzun genuen, erraldoia, Wagneren eragin handia duena. Erik Nielsen, BOseko zuzendari titular berriak interpretazio freskoa egin zuen. Lanak duen barneko dramatismoa leundu egin zuen, nolabait distira vienarra kanporatzeko. Oso dotorea. ■

Judith Jauregui piano jotzaile donostiarra



Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Neurria: 84.1 x 59.4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.



Egin ezazu eskaera: ☎ 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Onintza Enbeitak 2013an Markina-Xemeinen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *ETAren su-etenetik*. Gaia: "Orain arte maiz ikusten zenuten elkar. Aste bi dira zu ikustera etorri ez dela".

Ama izatea baino desiorik ez gehiago amama nindufen urteetan aurrerago. ikusten nuen denak baino ederrago ikustera joaten ia egunero, klaro. Gaur egun residentzian nago ez da hain ilobaren falta hartuta hementxe nago mundua aurrera doa ta ni geldik nago. (bis)



Ukberri-CC BY

Hemen zer dago ba: hiru saloi triste ta mahai egun guztiak berdinak ez astegun eta ez Nahiz ilobaren bisitak nindukeen alai saiatu nahi dut egoten bere esperoan Hau hain da leku tristea hau oso da, bai hemen dagoenez hainbat eta hil usai ni ezin naiz joan eta berak ez du etorri. (bis)

Hemen egunik gehienak joan egiten dira guztiok itxaropentsu datozen Bisitarik gabe nago ere gaurkoan nire minak, nire penak denak kolkooan. "Etorri hona baina barre bat janzikiko dut be lotarakoan ta bihar esnatuko naiz etorriko. (bis)

N Z N J O A N N J A R R I K O
E G I N N N A O K A L E D I F
Z G R D S R G I U T M A L H E
T D R Z A C L A O U E O N V H
N F Z M I O T R M T G A U R E
I I E J B O A V S R C C F M R
N S R A R A R L I H A J D I S I
F A V N R A R M V H U P V E O
A R R A S T O A N T Z M F G T
L U Z A R O N S D A G S N I Z
J O I R V N L E Z I M F U D L
I H A C I G A J M O M N J B L
F H A B E R R I R O E T B P L M
G E A J R E S A A T H N M B P
D U L N J E A E H U J E L C S
Z S H F B U B B J E I J A I

Sudoku

Erraza

							7	2
4	5	3			2			
7		9		1	3	5		
		8	1				3	
	1	6	3		8	4	5	
	4				6	9		
		2	8	6		7		4
			9			8	2	3
1	8							

Zaila

	4			3				9
9		5			8			4
					1			
8		4			3			
	2						4	
			9			3		1
				1				
7			6			2		3
5				8			6	

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										



Raulbot-CC BY SA

- Goitik behera:**
1. Hitz, berba. Upa, barrika.
2. Gorputz luzea eta mutur zorrotza duen bele. Modu.
3. Prestaturik, gertu. Omen.
4. Bizkaiko herria. Zergati, zio.
5. Mozkorti.
6. Atea.
7. Zati, atal.
8. Kanpora!
9. Une larri. Arren, mesedez.
10. Argazkian. Hegazti mota.

- Ezker-eskuin:**
1. Zuhaitz izena. Ugaztun basati.
2. Grina. Arraunez higitzen den ontzi txiki.
3. Gehitzeko partikula. Toki horretan. No, tori!
4. Abereak gordetzeko esparru.
5. Arteko.
6. Azpi, behe. Lau urtarotetik bigarrena.
7. Kanta zaharra. Kiroi-lasterketa.
8. Lurra iraultzeko lanabesa. Jolastoki.

Soluzioak


Erraza
Zaila

Esker-eskuin: 1. Ezpel, Puma
2. Lera, Babel, 3. Eze, Hor, No,
4. Eskorta, 5. Tarteke, 6. Pe,
7. Parta, 8. Urt, Akort,
9. Men, Otzi, 10. Aloe, Usu.

Goitik behera: 1. Eje, Upel,
2. Zere, Era, 3. Prest, Eit, 4. Ba,
5. Hordi, 6. Borta,
7. Parete, Ka, 8. Ut, Akort,
9. Men, Otzi, 10. Aloe, Usu.

Goitik behera: 1. Eje, Upel,
2. Zere, Era, 3. Prest, Eit, 4. Ba,
5. Hordi, 6. Borta,
7. Parete, Ka, 8. Urt, Akort,
9. Men, Otzi, 10. Aloe, Usu.

Ahoztar Zelaieta. Ikerketa kazetaria



IÑIGO AZKONA

Bihurria

“Apaiz izateari utzitako idazle baten semea, gaztetatik burubero eta bihurri xamarra izan nintzen. Izena Gabriel Arestiri zor diot, aitatik Sabino jartzeko asmoa zuen baina berak Ahoztar jarzea lortu zuen. Zentsura garaietan izen germanikotzat hartu zuten erre-gistroan, eta onartu zuten. Prostituta, poliziak, konfidenteak eta lapurrak izan ditut bidelagun eta batzuetan lagun. Rap musikari buruzko *121 la voz de los sin voz* saioa egiten nuen Tas-Tas irradian. Gizarte salaketarako musika egokia da rap-a. Egunen batean *Nik rap euskaraz, zuk zergatik ez* liburuia idatziko dut”.

Ikerketa kazetaritzaren ordezkariarik nabarmenetakoa da gurean Ahoztar Zelaieta bilbotarra. *Egin*-eko ikerketa taldean ibilia, ondoren *Ardi Beltza* eta *Kale Gorria* aldizkarietan. Geroztik hiru liburu argitaratu ditu: *Jóvenes burukides bizkainos* (2013, Txalaparta), *La casta vasca* (2014, autoekoizpena) eta *Kutxabank, el saqueo de Euskal Herria* (2015, autoekoizpena). Orain *Gabe* aldizkari digitala prestatzen ari da Txisko Espinosa eta Nuño Santillanarekin batera.

“22 urterekin batzokietako zaraman arakatzeko ohitura nuen”

Jabi Zabala
@sarean

Egin-en hasi zinen kazetari, ikasketak utzita, 1995ean. Ikerketa taldera zuzen?

Garai hartan hautagai gutxi zeuden prest. Ausardia sobera nuen 22 urterekin. Ordurako batzokietako zaraman arakatzeko ohitura nuen. Lanposturako aproposa izango nintzela pentsatu zuen Pepe Reik.

Egin itxi ostean *Ardi Beltza* sortu zenuten. Hura 2001ean itxi zuten, eta ondoren sortutako *Kalegorria*-k ez zuen aurrera egin.

Egin-en kriminalizazioak, *Ardi Beltza*-ren aurkako ekimenak eta Pepe Rei gaitzotzeak *Kalegorria*-ren bidea ahuldu zuten. Harpidedunak eta lankideak buruan eta bihotzean ditut beti.

Tentsio handiko urteak izan ziren *Egin*-en itxieratik *Ardi Beltza*-ren itxierara artekoak. Nola eragin zizuten tentsio horiek?

Faktura pertsonala oso handia izan da. Umore azidoarekin desdramatizatzen genuen: horren testigu izan zen Guardia Zibila, kasu, topaketa bitxiak izan baikenituen. Garai hartan *makarra* xamarra nintzen, Arnaldo Otegi barkamena eskatu behar diot horregatik.

Kriminologia ikasi zenuen ondoren.


Kazetaritza aktiboa utzi ondoren, kriminologiak ikerkuntzarako tresna eta iturri berriekin jokatzeko aukera eman zidan. Eta lagun handiak egin nituen, “maderoak” eta Basta Ya elkartekoak barne. Euskadiko lehen kriminologo elkartearen jaiotzan parte hartu nuen.

Putetxeen inguruko ikerketa egin zenuen garai hartan.

Mapa de la prostitución en Gipuzkoa (Prostituzioaren mapa Gipuzkoan) egin nuen. Prostituten %90 esklaboak dira. Langile liberala salbuespena da. Gehienek kuota pagatu behar dute eta familia atzerrian dute, mehatxupean.

Azken bi liburuak zuk zeuk ekoiztuta argitaratu dituzu. Hala hautatuta, edo behartuta?

Txalapartarekin ez dago “dibortziarik”, emantzipazioa besterik ez da autoekoizpena. *Hincapié* eta *Fueralacasta* proiektuekin lankidetzan ibili naiz. Eta aurrerantzean *Gabe* izeneko proiektuan ibiliko naiz buru-belarri.



Pepe Reirekin batera prentsaurreko bat ematen, 1998an.

ANDONI CANELLADA (AHOZTAR ZELAIETAK UTZIA)

Zertan da egun ikerketa kazetaritza gurean? Gabe proiektuak, hain zuzen, galdera hori egin dio Euskal Herriari. *Ardi Beltza*-n nuen helburua kartzelan bukatzea zen, ustelkeriaren aurrean zegoen adierazpen askatasun gabezia nabarmentzeko. *Gabe* aurrera badoa, nire helburua Urkulluren irribarrea lortzea izango da, haren "miseriak" salatzen ditudan bitartean. Utopietan sinesten dut oraindik.

Pepe Reik utzitako arrastoa non dago?

Pepe Reiren ikasle fina izan zen gure "sandaliño", David Fernández, CUPeko kidea. Hori baino arrasto arrakastatsua-gorik? Hain zuzen, *Gabe* proiektuan Peperen sendiko "Dalton anaiak" gabiltza Lucky Luke tirokatzeko asmoz. Peperi omenaldia zor zaio, atoa.

Zergatik ez dago ikerketa sailik egun euskal prentsan? Garestia dela esan ohi da baina, ba ote da bestelako arrazoirik?

Tokian tokiko kazetaritza ikerkuntza pila dago. Baita ikerketak egiten dituzten kazetariak ere. *Berria*-n eta *Argia*-n orain gutxi irakurri ditut lan batzuk. Galdetu

euskal prentsaren patronalari zer ondorio –ekonomiko eta politiko– ekar ditzakeen ikerkuntza kazetaritza sail batek. Galdetu ikerkuntza egiten duten kazetariei zer nolako presioak jaso dituzten, kanpotik eta barrutik. Galdetu zure buruari.

Ikerketa, ikerketa-salaketa, muckracking... Zein izendapenekin egiten duzu bat?

Nik "zehaztasun kazetaritza" delakoa nahi-koa dut. Filtrazio ikerkuntza gehiegi dago.

Espanian ustelkeria kasu ugari azaleratu dira azkenaldion. Euskal Herrian ez hain-beste. Gutxiago gertatzen dira?

Euskal Herrian eraso sexista gutxiago dago? Euskaldunak ez gara matxistak? Epailiek eta medioek erregistratutako ustelkeriaz ari gara? Euskadiko Fiskaltzako nagusiak eta Kontu Auzitegiko lehendakariak EAJren ustelkeria azalertzeko ezintasuna salatu dute.

Euskaldun ondradua mitoa da, beraz?

Hemendik laburrera EAJko hainbat alkatereen kontrako sententziak helduko dira. Beraientzat espresuki egin beharreko

kartzelak –ironia da– ate irekiak izatea proposatuko nuke. Bere ardura onartzean atek zabalik sartzeko eta kalteak ordaintzen bukatzean atek irekita irteteko.

Ezker abertzalea libre dago ustelkeriatik?

Obsesio hori zuen Roberto Uriartek, Ahal Duguko buru ohiak, eta nire erantzuna beti berdina da: milaka milioiko aurrekontuarekin dabilta ehunka kazetari ezker abertzalea ikertzen. Edo profesional kaxkarrak dira edo ustelkeria gutxi dago hor. Nik gutxi lantzen diren esparruak betetzen ditut.

Wikileaks garaia da egun. Zertan aldatu du muckracking-a sareak?

Wikileaks eta halako filtratzaile interesdunekin ez naiz fio. Tantaz tanta ematen den informazioa eta legitimazio patriotiko-demokratikoa ez ditut gustuko. Manuel Castells kazetariaren *Poder y Comunicación* liburua gomendatu nahi nuke, sare sozialen, hedabideen eta indar politiko-ekonomikoen arteko harremanak ulertzen laguntzen du. Patronal mediatikoaren aho-tsak (Iñaki López, Jordi Evole, Wyoming eta halakoak) desmitifikatzeko balio du. ■



2016an irakurriko ditugun albiste nagusiak

2016. urtea historikoa izan dela adierazi du Gure Esku Dagok: "Herritarrei zer galdetu erabakitzen hasteko erabakia hartzeko prozesua abiatzea aztertzeraz goaz"

Inauguratu dute Donostia eta Caracas arteko Abiadura Handiko Trena. Behin metroarentzako zuloa egiten hasita, fundamentuz egin behar zela adierazi du Enekok, goiak jota

Arnaldo Otegiren adierazpenak, kartzelatik atera berritan: "Pernando, ze kuxidade da hau? Hasi garbitzen derrepente"

Isunak jarriko dizkiete Ipar Euskal Herrira joatean bertako euskalkiak imitatzen saiatzen diren Hegoaldekoiei

Estatugintzari buruzko artikuluen Guinness errekorra hautsi du Jule Goikoetxeak

Euskalgintzak diskurtso berria aurkitu du: beste galtzen patrikan zeukan eta aspaldi garbigailua jarri gabe

ETB1 itxi eta kamera ezkutuko saioak emango dituzte 24 orduz "irismen" handiagoa lortzeko

Ostalari donostiar bat tiroka hil du Ertzaintzak atrakatzailer batekin nahasita "Jode, gero eta zailagoa da desberdintzea", adierazi du negarrez tiro egin duen agenteak

Hiru damatxoko hirurak beren bideoetan agertzen direnean kameralaria zein den ikertzen ari da Iker Jimenez Bittor Aiape eta Panpi Laduche dira susmagarri nagusiak

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA

PAREKIDETASUNA

INGURUMENA

EUSKALTZALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA

DEMOKRAZIA ZUZENA

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

HERRIEN MUNDUA

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Parekidetasuna balio ardatzetako bat da ARGIA n. Feminismoa eta genero ikuspegia gure egunerokotasunean txertatzen ari gara, teorian bezain praktikan. Merezki duen bizitza nahi dugu euskal herritarrentzat eta helburu hori erdigunean jartzen duen komunikazio proiektua gara.

URTARRILEKO ZOZKETAK



Tribial Feminista: ezagutu emakumeen historia (5 mahai-jolas)

Euskadiko Jabetze Eskolak



Bizentaren lumak: sustatu jarrera parekideak (5 solas-jolas)

Elhuyar
bizentarenlumak.elhuyar.eus



Bilgune Feministaren materialarekin: Kamiseta, CD eta DVD edo liburua (3 saski)

Bilgune Feminista
www.bilgunefeminista.eus



Genealogia Feministak liburua eta Emaraun-en harpidetza

Bilgune Feminista
www.bilgunefeminista.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com